

Gradu Amaierako Lana

Chris Wickhamen proposamenaren harira: nekazarien ekoizpen moduaren oinarri teorikoak

Egilea: Irati Zuriarrain Asurmendi

Tutorea: Juan José Larrea Conde

Historiako Gradua, 2020-2021 ikasturtea

Filologia eta Historia saila

Gasteiz

LABURPENA:

Chris Wickham historiagileak *Framing the Early Middle Ages* (2005) liburuan Goi Erdi Aroko gizartea azaltzeko bi eredu idealen harreman dialektikoa proposatu zuen. Batetik, ekoizpen modu feudala, eta bestetik, nekazarien ekoizpen modua. Azken hau, berriztat har daiteke Erdi Aroaren inguruko historiagintzan. Kategoria honen bitartez kontzeptualizatzen ditu Wickhamek Goi Erdi Aroko landa-komunitate erlatiboki autonomoak. Ekoizpen modu hau eredu ideal gisa eraikitzen du, horretarako, antropologiaren eta ekonomiaren alorreko lanetatik ateratako zenbat ezaugarritan oinarrituz. Oro har, hiru dira bere erreferentziazko obrak: Marshall Sahlinsen *Stone Age Economics* (1972), Ester Boserupen *The Conditions of Agricultural Growth* (1965) eta Claude Meillassouxen *Femmes, greniers et capitaux* (1975).

Gradu Amaierako Lan honetan zehar, hain zuzen ere, Wickhamek proposatutako nekazarien ekoizpen moduaren oinarri teorikoak aztertzen dira. Bide horretan, lehenbizi, nekazarien ekoizpen moduaren ezaugarriak aurkezten dira. Era berean, Wickhamen proposamenaren kokapen teoriko bikoitza egiten da: lehenik, Goi Erdi Aroari buruzko historiografia marxistaren baitan, eta bigarrenik, ekoizpen modu prekapitalisten inguruko azterketetan.

Nekazarien ekoizpen moduaren oinarri teorikoen azterketa egin ostean, bi obra ezarri ditut kategoria honen ardatz nagusi gisa: M. Sahlinsena eta E. Boserupena. Izan ere, lehen lanetik, oro har, komunitate primitiboak ezaugarritzeko nolakotasunak hartzen ditu Wickhamek, bereziki, ekoizpenaren antolaketaren eta ekoizpen-unitateen barne zein kanpo harremanen ingurukoak. Bigarrenetik, ordea, ideia partzialago batzuk erabiltzen ditu soilik, gehienbat, demografiari, garapen teknologikoari eta presio soziopolitikoari dagozkionak. Hirugarren erreferentzia den C. Meillassouxen kasuan, ordea, bere eraikuntzatik hartutako osagaiak oso bazterreko papera jokatzeko dutenez, ez da obraren inguruko analisirik gauzatu.

Modu berean, lan honen bitartez, aipatutako lanen testuinguru intelektuala jorratzen da. Azken batean, Wickhamen erreferentzia zuzenak ez diren zenbait autoreren ideiak zeharka iristen baitira bere proposamenera. Batetik, A. V. Chayanov aipa daiteke, Wickhamek bere lan-kontsumo balantzearen nozioa baliatzen du. Bestetik, antropologia ekonomikoaren alorreko beste zenbait autore aipatzen dira, batik bat, gizarte primitiboen inguruko jarraibideak ezarri dituztenak.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
1.1. Lanaren aurkezpena eta helburuak	4
1.2. Chris Wickham: <i>Framing the Early Middle Ages</i> (2005)	5
1.2.1 Nekazarien ekoizpen modua (NEM)	6
1.3. Wickhamen proposamen teorikoaren kokapena	9
1.3.1 Goi Erdi Aroari buruzko historiografia marxista	9
1.3.2. Ekoizpen modu prekapitalisten azterketa	11
2. NEKAZARIEN EKOIZPEN MODUAREN OINARRI TEORIKOAK	13
2.1. Marshall Sahlins: <i>Stone Ages Economics</i> (1972)	13
2.1.1. Etxeko ekoizpen modua (EEM)	15
2.1.1.1. Sexuaren arabera banatutako lan gaitasun urria.....	16
2.1.1.2. Teknologia sinplea	17
2.1.1.3. Ekoizpenaren helburu mugatuak: biziraupenera bideratua	18
2.1.1.4. Indar produktiboen erabilera ez-intentsiboa	20
2.1.1.5. Jabetza hierarkizatua.....	21
2.1.1.6. Parentesi bat: NEM eta esklabotzaren arazoa	22
2.1.1.7. Unitatearen ekoizpenaren barne-zirkulazioa.	24
2.1.1.8. Naturazko egoera.....	25
2.1.1.9 Sahlinsen truke primitiboa	26
2.2. Ester Boserup: <i>The Conditions of Agricultural Growth</i> (1965)	28
2.2.1. Nekazaritzaren garapenaren baldintzak.....	29
2.2.1.1. Maila teknologikoaren eta ustiatze-ereduen garapena	30
2.2.1.2. Aldaketaren faktore demografiko eta sozialak biziraupeneko ekonomietan	32
3. ONDORIOAK	35
4. BIBLIOGRAFIA	38

1. SARRERA

1.1. Lanaren aurkezpena eta helburuak

Chris Wickham historiagileak, *Framing the Early Middle Ages* (2005) liburuan Goi Erdi Aroko gizartea azaltzeko bi eredu idealen harreman dialektikoa proposatu zuen. Bata, feudala, eta bestea, Erdi Aroaren inguruko historiagintzarako berritzat har daitekeena, nekazarien ekoizpen modua, alegia. Eredu honek izan duen oihartzunagatik eta berrikuntza teorikoa izan nahi duen aldetik, nire interesa piztu du. Hori horrela, Gradu Amaierako Lan honen xedea Wickhamek proposatutako nekazarien ekoizpen moduaren oinarri teorikoak aztertzea da. Hau da, eredu honen oinarri antropologiko eta ekonomikoak landuko ditut proposamenean dituzten eraginak identifikatu eta ulertzen saiatzeko. Hau, beraz, azterlan teorikoa da. Helburua ez da laburpen bibliografiko bat egitea, Wickhamen eredu idealean obra nagusi bakoitzak duen pisua eta betetzen dituen funtzioak analizatzea baizik.

Helburu hori betetzeko lehen pausoa Wickhamen beraren ereduaren azterketa izango da. Hots, nekazarien ekoizpen moduaren ezaugarriak identifikatu, xehatu eta deskribapen jarraitu batean aurkeztuko ditut. Ildo beretik, Wickhamen eredia dagokion testuinguruan ulertzeraz bidean, bere proposamenaren kokapena egiten saiatuko naiz: batetik, Goi Erdi Aroari buruzko historiografia marxistaren baitan, eta, bestetik, ekoizpen modu prekapitalisten inguruko azterketetan.

Hurrengo urratsa Wickhamen eredurako erreferentziazkoak diren obren lanketa gauzatzea izango da. Bibliografia antropologiko eta ekonomikoaren azterketa burutuko dut, alegia. Preseski, M. Sahlins, E. Boserup eta, neurri txikiago batean, C. Meillassouxen lanak izango ditut jarraibide. Obra hauen analisia gauzatu ostean, hauek Wickhamengan izandako eraginaren arabera hierarkizatu eta bere ereduan jokatzeko duten rola zehazten saiatuko naiz.

Horrela, konparaketa erabiliko dut estrategia analitiko gisa, deskribapen bat baino helburu esplikatiboak betetzera bidean. Analisi hau aztertutako lanen testuinguru intelektuala bistatik galdu gabe garatzeko, halaber, antropologiaren zein ekonomiaren alorreko beste zenbait lan baliatuko ditut. Modu horretan, nekazarien ekoizpen moduaren oinarrien azterketaren erredakzioa mamitu ostean, prozesuan zehar ateratako ondorio nagusien azalpenarekin amaituko dut lana.

1.2. Chris Wickham: *Framing the Early Middle Ages* (2005)

Christopher John "Chris" Wickham (1950-) historialari eta akademiko britainiarra da. Oxfordeko Unibertsitatean Arteetako lizentziatura batekin graduatu zen. Ondoren, graduondoko ikerketak egiteko gelditu zen bertan eta Filosofiako doktore titulua osatu zuen 1975ean, *Economy and Society in 8th Century Northern Tuscany* izeneko tesiarekin. Wickhamek ia hogeita hamar urte eman zituen Birminghameko Unibertsitatean, eta 1993an Erdi Aroko Historiako katedradun izendatu zuten. 2005ean, Oxfordeko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako Chichele Katedra eman eta *All Souls College*-eko kide izendatu zuten. 2015eko irailetik, Oxfordeko Unibertsitateko Giza Zientzien Dibisioko zuzendari izan zen. 2015/2016 ikasturtearen amaieran erretiratu zen, eta ondoren, Erdi Aroko Historiako irakasle izendatu zuten Birminghameko Unibertsitatean lanaldi partzialean.

Wickhamen ikerketa-eremu nagusia Erdi Aroko Italia izan da, Erromako inperioaren amaieratik 1300 ingurura bitartean. Oro har, bere lanetan alderdi sozial eta ekonomikoak jorratu dituen arren, historia juridiko eta politikoaren inguruko ikerketak ere gauzatu ditu. Historiografikoki, optika marxistaren baitan burutu ditu bere lanak, besteak beste, Europako gizartea Antzinate Berantiarretik eta Erdi Aro goiztiarretik nola aldatu zen aztertzeke helburuz. Zentzu honetan, aitzindaria izan da azterketa sozioekonomiko konparatiboan¹.

2005ean argitaraturiko *Framing the Early Middle Ages*² lanean, hain zuzen, 400 eta 800 urteen arteko Mendebaldeko Europako eta Mediterraneoko historia ekonomiko-sozialaren azterketa egiten du Wickhamek. Liburua hamar eskualderen arteko konparaketen bidez egituratzen da: Afrika (iparraldekoa), Egipto, Siria/Palestina, bihotz bizantziarra (Grezia eta Anatolia), Italia, Espainia, Galia/Frantzia, Ingalaterra eta Gales, Irlanda eta Danimarka.

¹ PEOPLEPILL. *About Christopher Wickham: British historian (1950-)*. [online] Eskuragarri: <<https://peoplepill.com/people/christopher-wickham>> [Azken kontsulta: 2021/05/10].

² WICKHAM, *Framing*.

1.2.1 Nekazarien ekoizpen modua (NEM³)

Chris Wickhamen *Framing the Early Middle Ages* liburua, 400 eta 800 urteen artean gertatu ziren eraldaketa ekonomiko eta sozialen ingurukoa, erdiarolaritzaren eta historialari marxista ingelesen lan handien artean kokatzen da. Bertan garatzen du Wickhamek NEMaren proposamena (aurretiko *peasant based societies* kategoria perfektionatu⁴) Goi Erdi Aroko landa-komunitate erlatiboki autonomoak kontzeptualizatzeko modu gisa. Honela definitzen du Wickhamek ekoizpen modu hau: «lur-jabeek edo Estatuak soberakinik sistematikoki hartzen ez dutenean aurki daitezkeen nekazaritza-ekonomiaren ereduak⁵». Hau da, soberakinaren erauzketarik eza (edo erlatiboki eza) da beretzat eredu honen existentziaren premisa.

“Nekazarien” ekoizpen modua kontzeptua erabiltzearen arrazoia sistema ekonomiko prekapitalisten sailkapen egoki baten falta litzateke Wickhamen hitzetan. Eskura zeuden alternatiba nagusiak, “komunal primitiboa”, “familiakoa” edo “etxekoa”⁶ lirateke, baina zehatzegiak edo generikoegiak iruditzen zaizkio. Kontzeptu honen baitan nekazari sedentario autonomo guztiak sartzen dira, hortaz, artzain nomadak eta ehiztari biltzaileak kanpo uzten ditu, sistema ekonomiko desberdinak dituztelakoan⁷.

Ekoizpen modu hau eredu ideal⁸ gisa eraikitzen du Wickhamek, eta horretarako, antropologiaren alorreko lanetatik ateratako zenbait ezaugarritan oinarritzen da. Oro har, hiru lan aipatzen ditu erreferentzia nagusitzat: Marshall Sahlinsen *Stone Age Economics* (1972), Ester Boserupen *The Conditions of Agricultural Growth* (1965) eta

³ Hemendik aurrera nekazarien ekoizpen modua NEM izenez agertuko da.

⁴ DA GRACA, «Peasant Mode...», 159. or.

⁵ WICKHAM, *Framing*, 259. or. Hau da Wickhamek lanean formulatzen duen NEMaren definizio bakarra. Ondoren, modu honen ezaugarriak ezagutarazten dituen arren, funtsean, definizio negatibo bat dela esan daiteke. Eredu ideala aurkezteko modua ere berdina da, logika feudala azaldu ostean galdera honekin hasten du honen karakterizazioa (536. or): «Alabaina, nola funtzionatuko luke logika ekonomikoak nekazari soberakinak jaunei edo kanpoko beste edozein botereri eman beharko ez balizkiete?».

⁶ Hurrenez hurren, Marx, *Formaciones económicas precapitalistas*; Terray, *Marxismo y sociedades "primitivas"*; Sahlins, *Economía de la Edad de Piedra*.

⁷ *Ibidem*, 536. or.

⁸ “Eredu idealaren” kontzeptu orokorra Max Weberrek eraiki zuen. Beretzat, eraikuntza ideotipiko bat «bizitza historikoko» zenbait prozesu eta testuinguru utopia bat den osotasun “ideal” batean bateratzen direnean lortzen da. Eraikuntza hori zenbat eta puruagoa izan eta errealtatetik aldentuago egon, orduan eta egokiagoa da bitarteko heuristikoko gisa. Errealtatearen edukia alderatu eta neurtzeko bitarteko gisa balio du, «errealtate soziala eraikitako errealtate idealetik zenbateraino aldentzen den erakusteko». Weberrek, marxismoarekin bat egiten ez zuena, gizartearen eredu ideal gisa ulertzen zituen Marxen ekoizpen moduak (SANCHEZ DE PUERTA TRUJILLO, “Los tipos ideales...”, 11-32. orr). Eredu idealaren kontzeptua, beraz, Marxen mekanismo analitikotik (abstrakzioa) aldentzen da.

Claude Meillassouxen *Femmes, greniers et capitaux* (1975)⁹. Era horretan, lan hauetako zenbait premisa eta ezaugarri hautatuz eraikitzen du Goi Erdi Arorako kategoriaren proposamena.

Ekoizpen modu hau, eredu ideal gisa, ezaugarri hauek bereiziko lukete:

- 1) Esplotazio ekonomikorik eza: nekazarien autonomia erlatibo batek jabetza txikien hegemonia bermatzen du ekoizpenean.
- 2) Etxeko unitatea antolaketa sozioekonomikoaren funtsezko elementua izatea¹⁰.
- 3) Funtsean, etxeko unitateak zuzenean kontrolatzen duen lurra lantzen du.
- 4) Beste unitate batzuekin trukea dago (harreman sozialen sare bati erantzuten diona) eta elkarrekikotasunean oinarritzen da.
- 5) Soberakina ez da pilatzen: opari moduan ematen da edo kolektiboki kontsumitzen da.
- 6) Ez dute gogor lan egiten.
- 7) Ekoizpen-indarren garapena urria eta gutxi estimatua da.
- 8) Ez dago ekoizpena areagotzeko pizgarririk.
- 9) Merkatuak marjinalak dira.
- 10) Gizarte-egitura ez da nahitaez berdintasunezkoa.
- 11) Estatusa elkarrekikotasunaren bidez negoziatzen da, eta, beraz, ez da egonkorra¹¹.

Gizarte-logika honek, era berean, baldintza sozioekonomiko zehatz batzuei erantzuten die: aristokraziak eta Estatuak kontrol sozial ahula dute nekazarien populazioen gainean, azken horien autonomia erlatiboa logika horren aukeraren baldintza baita. Honela, Goi Erdi Aroan NEMaren agerpena aristokraziaren pobretze-prozesu historiko batekin eta Mendebaldeko Europan V. eta VI. mendeen artean gertatu zen zerga-sistemaren gainbeherarekin lotzen du.

V. mendetik aurrera, erromatar sistema fiskala, nagusiki, germaniar armadak lurretan ezartzearen eta aristokrazia lur-jabe bihurtzearen ondorioz deuseztatu zela dio. Gertaera horrek, Estatu-egitura sinpleagoekin eta administrazio zibil mugatu batekin batera, zergaren beharra murriztu zuen. Aristokrazia berriak lurra jaso zituen, errenta-

⁹ WICKHAM, *Framing*, 536. or. Oin-ohar batean, M. Godelierren *Racionalidad e irracionalidad en economía* (1974) lana ere «erabilgarria izan daitekeela» aipatzen du Wickhamek (536. or.).

¹⁰ TEJERIZO GARCÍA, *Arqueología de las sociedades*, 241. or.

¹¹ DA GRACA, “Reflexiones...”, 270. or.

sistemak sortu ziren eta boterea lokalizatu egin zen, Estatua ahulduz. Testuinguru horretan, nekazari askeak agertu ziren (baina ez aristokraziaren kontroletik erabat aldentuta)¹². Ondorioz, Wickhamen planteamenduaren arabera, mendekotasun-lotura pribatuetatik eta publikoetatik askatutako nekazalgo bat sortu zen, erlatiboki berdintasunezko komunitateetan biltzeko joera eduki zuena, NEMaren logikaren arabera antolatuak¹³.

Nekazarien modua, ordea, ez zen zonalde guztietan era berean garatu: aristokraziaren eta nekazalgoaren arteko indar-korrelazioaren arabera bi patroiz zehazten ditu Wickhamek. Lehena, Europa iparraldeko eredu tribala litzateke, NEM nagusi litzatekeen zonaldea: betebeharrak dituzten nekazari askeak, zerga ahul eta aldizkakoak, funtzioak aitortzeagatik nagusiekiko elkarrekotasuna, batzar erregularrak eta esklabo edo maizterren lan-indarraren menpekotasun mugatua. Horrelako gizarteak nagusi izango ziren Ingalaterran, Galesen, Irlandan, Danimarkan eta Espainiako zenbait eskualdetan. Bigarrenik, ekoizpen modu feudalaren logika nagusi zen zonaldeak leudeke, zeinetan, nekazarien ekoizpen modua «lehoinabar orbanen» gisara kokatuko litzatekeen (Frantzia, Italia eta Espainiaren zati batzuk)¹⁴.

Azkenik, eredu idealak Goi Erdi Aroko gizartearen behaketa enpirikoan lur hartzen duenean bi desbideraketa nagusi identifikatzen ditu: batetik, orokorrean ez dirudi NEM egoera "garbi" batean inoiz existitu zenik; bigarrenik, nekazarien komunitateen barneko hierarkia egonkorragoa zen (elite lokalek baliabide gehiago zituzten, gizarte biolentoagoak ziren mundu-ikuspegitik eta nekazarien etxeetan menpeko ez-askeak zeuden). Wickhamentzat, hauek lirateke Goi Erdi Aroko nekazari-ekonomiak «analogia antropologikoetan oinarrituz ezarri nuen nekazari modu idealetik *slightly different* izatea» eragiten dituen elementuak¹⁵.

¹² ASTARITA, "Peasant-Based...", 195. orr.

¹³ Bi ideia hauetatik (aristokraziaren krisia eta nekazalgoaren autonomia erlatiboa) lehena erdiarolari gehien artean onartua dago. Bigarrenaren inguruan, ordea, desadostasun desberdinak azaleratu dira Wickhamen proposamenetik. Kritika hauetatik bi nagusi nabarmen daitezke: J. Banajirena (2010) eta C. Astaritarena (2011). Haatik, hain ezagunak izan ez arren, L. De Gracaren (2008; 2015) ekarpen kritikoak ere ahotara ekartzekoak dira.

¹⁴ WICKHAM, *Framing*, 539-541. orr.

¹⁵ *Ibidem*, 542-544. orr.

1.3. Wickhamen proposamen teorikoaren kokapena

1.3.1 Goi Erdi Aroari buruzko historiografia marxista

Historiografikoki, *Framing the Early Middle Ages*-ek (eta, beraz, NEMak) kokapen argia dauka Behe Inperioaren eta Goi Erdi Aroaren banalerroko ikerketa marxisten artean¹⁶.

Lehen Goi Erdi Aroa¹⁷ historiografia marxistaren artean entzute gutxiko aldia izan da; Engelsen zenbait lan edo unean uneko lanketak alde batera utzita, aldi hori 1970 inguruan baino ez zen kontuan hartzen hasi¹⁸. Hain zuzen ere, hamarkada honetan ekoizpen moduen inguruko eztabaidak hasi ziren pizten marxismo althusseriarraren bueltan¹⁹. Eztabaida hauek, ordea, ekoizpen moduen inguruko legeen sorkuntzan zeuden oinarrituak, Wickhamek «interpretazio teologiko» gisa definitu zituenak²⁰. Korrante honen baitako ekoizpen-moduen eskema ebolutiboaren barruan, Mendebaldeko Erromatar Inperioaren amaieraren eta feudalismoaren ezarpenaren arteko aldia «linbo kontzeptual» batean geratu zen²¹.

Gabezia honen testuinguruan koka daiteke “ekoizpen modu germaniarra” bezalako kategoria instrumentalen erabilera, Antzinako gizarteetatik gizarte feudaletarako igarotzerako hutsune teorikoa betetzea helburu zutenak²². Ekoizpen modu germaniarra, jatorrian, Marxek erabili zuen bere *Grundrisse*-etan (1857-1858), baina honen kokapena Engelsek laburtu zuen, batez ere, *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado* (1884) dibulgazio lanean.

¹⁶ Ereduaren lehen kokapena egiteko, Wickhamen beraren eta bere jarraitzaile den Carlos Tejerizoren azalpen ezberdinak baliatu ditut gehienbat. Orokorrean, karga subjektibo handikoak direla iruditzen zait. Amaieran aipatuko ditut ustez identifikatu ditudan zenbait arazo edo hutsune.

¹⁷ Tejerizok (2020) erabiltzen duen izendapena Mendebaldeko Erromatar Inperioaren amaieraren eta ekoizpen harreman feudalen ezarpenaren arteko garai historikoari erreferentzia egiteko. Autoreak historiografia frantsesaren proposamenak jarraituz baliatzen du izendatze hau, ondorengo erreferentzia aipatuz: cf. NISSEN-JAUBERT, Anne. «Le haut Moyen Âge», en Alain Ferdière, François Malrain, Véronique Matterné, Patrice Méniel y Anne Nissen-Jaubert (eds.). *Histoire de l'agriculture en Gaule*, Paris: Errance, 2006, 141-197. orr.

¹⁸ ASTARITA, “Peasant-Based...”, 195. orr.

¹⁹ Louis Althusserrek 60ko hamarkadan argitaratutako liburuetan diziplina historikoaren metodoari, oinarriari eta teoriari buruzko gogoetak biltzen zituen, estrukturalismo marxistaren eskemak aplikatuz eta “ekoizpen modu” eta “formazio ekonomiko soziala” bezalako kontzeptuen analisisia hedatuz. Althusser eta bere eskolaren lanak mundu osoko historialari, antropologo, ekonomialari eta soziologoaren analisisetan eragin handia izatea lortu zuen. Althusser, althusseriarrak eta estrukturalismo marxista benetako moda bihurtu ziren, postestrukturalismoaren etorreran eta marxismoaren uztean amaitu zena (MARTÍN MILIDDI, «Pierre Vilar...», 3. or.).

²⁰ WICKHAM, “Aproximaciones...”, 91-96. orr.

²¹ TEJERIZO, “Del modo...”, 20. or.

²² *Ibidem*, 20. or.

Erdiarolaritzaren eremuan, berriz, Perry Andersonen *Transiciones de la antigüedad al feudalismo* (1974) lanean aurki daitezke ekoizpen modu honen oinarri nagusiak. Kategoria hau da, neurri handi batean, historiografia marxistan nagusitu zena Erromatar Inperioaren eta ekoizpen harreman feudalen ezarpenaren arteko garaia azaltzeko²³. Wickhamentzat (1989), ostera, kategoria hau Marxek «desegokiro aztertutako» sistema ez-hierarkizatuen multzoaren barnean defini daitekeen modu bat izan zen, izendapen murriztaileegitza jotzen zuelarik. Beraz, nekazal ekoizpen moduaren proposamen teorikoa gauzatu baino lehen, jada, althussiar marxismoaren eta modu germaniarraren proposamenak bazter uztearen alde ageri zen Wickham.

Arrazoi kontzeptual hauetaz gain, 80ko hamarkadatik aurrera marxismoak marko teoriko gisa jasandako onarpen-beherakada ere kontutan hartzekoa da aldi honekiko hutsunea ulertzeko. Erdi Aroko Historian, eztabaiden karga ideologikoa eurrez murriztu egin zen, batik bat, 90eko hamarkadaz geroztik. Wickhamek, lau arrazoi nagusi identifikatu zituen tendentzia honen zergatiak aztertzean: borroka politikoa akademiaren barnetik desagertzea; Sobietar Batasunaren deuseztapena; historia ekonomiko eta soziala modaz pasatzea, eta azalpen historikoak eklektiko bilakatzea²⁴. Beherakada honen emaitza gisa ere kokatzen du, beraz, termino marxistetan gauzaturiko Goi Erdi Aroko lanen falta.

Bi faktore hauen batuketaren emaitza (hutsune kontzeptuala eta marxismoaren beherakada) litzateke, Wickhamentzat, aldi hau interpretatzeko materialismo historikoaren oinarri teoriko, metodologiko eta politikoei loturiko proposamen teorikorik ez egotea²⁵. Era berean, Wickhamek berak, testuinguru honi kontrajartzeko asmoan kokatzen ditu bere lana eta NEMaren proposamen teorikoa.

Wickhamek eta Tejerizok egindako kokapen honek, ordea, baditu zenbait arazo. Batetik, ekoizpen modu germaniarra bezalako kategoriak Marx eta Engelsen definizioak bailiran aurkezten dira, hauek eboluzionismoaren itzalak baino ez direnean. Alegia, Marx eta Engels hasieratik oinarritu ziren Maurer, Morgan eta Kovalevsky bezalako etnologo eboluzionistetan haien lanak idazteko. Gainera, nabarmentzekoa da 1880tik Marxek *Formen*-eko planteamendua moldatu zuela: adibidez, lan berrien eraginak,

²³ *Ibidem*, 21. or.

²⁴ WICKHAM, "Aproximaciones...", 94-96. orr.

²⁵ TEJERIZO, "Del modo...", 23. or. Wickhamen lanaz gain tendentzia honen salbuespen gisa aipatzen du J. Haldonen (1993) *The state and the tributary mode of production* lana.

Marx kontzeptu berri bat hausnartzera eraman zuten, “landa komunitatea”-rena²⁶. Hortaz, proposamen hauen oinarriak *Grundrisse*-ak baina lehenago kokatu behar dira, bai eta Marx eta Engels-en garapen kontzeptuala denboran luzatu ere.

Bigarrenik, kokapen teoriko honetan Goi Erdi Aroa landu duten zenbait autore marxista ez dira kontutan hartzen. Zentzu honetan, gogora ekarri beharrekoa da, batetik, A. Neusykhin historiagile sobietarra, Mendebaldeko Europako Goi Erdi Aroko historia sozioekonomikoan aditua. Neusykhinek “tribu” germaniarretako jabetza forma komunalaren eboluzioa ikertu zuen, nekazari libreak feudalismoaren mendeko bihurtzeko prozesua aztertuz²⁷. Bestalde, Alemaniako Errepublika Demokratikoko (AED) zenbait erdiarolari marxistek ere landu zuten aldi hau, H.-J. Bartmursek, esaterako, V-XI. mendeen bitarteko Alemaniako historia idatzi zuen. Era berean, aipatzekoak dira E. Laube, B.Töpfer, S. Epperlein zein E. Müller-Mertens bezalakoak. Hain zuzen, AEDko figura hauen inguruan formazio prekapitalisten inguruko eztabaidak eman ziren 60ko hamarkadatik aurrera²⁸.

Azkenik, marxismo althusseriarraren inguruko eztabaidei dagokienean, tendentzia honen aurkako historiagile marxistak ere bazeuden, P. Dockès kasu. Autore hau, optika marxista batetik, esklabismoaren desagertzea azaltzen saiatu zen, Anderson bezalako historiagileen kontraketarekin. Dockèsen esklabismoaren desagertzea esklaboen borroketan kokatzen du: bagauden errebolteetan, hain zuzen²⁹. Wickhamen proposamenaren aurretiko “Lehen Goi Erdi Aroko” ikerketa marxisten agertokia, beraz, ez zegoen aditzera ematen dutena bezain hutsa.

1.3.2. Ekoizpen modu prekapitalisten azterketa

Ekoizpen moduen kontzeptua Marxek erabili zuen lehen aldiz kapitalismoaren egitura orokorra eta dinamika teorizatzeko ahaleginetan. Harrezkero, eurrez erabili da, ekonomia politiko marxistan eta ikerketa historikoetan bereziki, sistema ekonomiko ezberdinak aztertzeko helburuz. Kontzeptuaren aplikazio-eremu orokorrari buruzko

²⁶ GODELIER, *Teoría marxista*, 118. or.

²⁷ NJEUSSYCHIN, Alexander I. *Die Entstehung Der Abhängigen Bauernschaft: Als Klasse Der Frühfeudalen Gesellschaft in Westeuropa Vom 6. Bis 8. Jahrhundert*. Berlin: Akademie Verlag, 1961. Informazioa ondorengo web horritik atera dut: “Neusykhin, Aleksandr”. *The Great Soviet Encyclopedia, 3ed Edition, 1970-1979*. The Gale Group, 2010. [online] Eskuragarri: <<https://encyclopedia2.thefreedictionary.com/Neusykhin%2C+Aleksandr>> [Azken kontsulta: 2021/05/12].

²⁸ GUERREAU, *El feudalismo*, 99-100. orr.

²⁹ BONNASSIE, “Supervivencia...”, 57-58. orr.

adostasun zabala egon arren, ekoizpen modu jakin batzuk definitzeko eta bereizteko ikuspegi desberdinak daude³⁰.

Hain zuzen ere, *Grundrisse* izeneko Marxen zirriborroen (1857/1858) aurkikuntza berantiarrak eztabaida berriak ireki eta irakurketa zaharrak birpentsatzea eragin zuen³¹. Zentzu horretan, *Formen* izeneko kapituluaren argitalpenak gizarte prekapitalistei buruzko eztabaida eta ikerketa luzeak zabaldu zituen³². Bertan, ekonomia prekapitalisten egiturak tratatu zituen Marxek. Ondoren, tradizio engelsiarrak garapen historikoko bost estadio egon zirenaren ideia zabaldu zuen: komunal primitiboa, esklabista, feudala, kapitalista eta sozialista. Era berean, eztabaida ugari egon ziren beste ekoizpen modu batzuen inguruan, Marxen gutun eta idazki sakabanatuetan identifikatu zirenak: antzinakoa, germaniarra, eslaviarra eta, batez ere, ekoizpen modu asiarra³³.

Gizarte komunal primitiboari dagokionean, Marx eta Engelsen ikuspuntu historikoak bi egileren ikerketetan oinarritzen ziren gehienbat: Maurer, jabetza komunala estadio zehatz baten aztarna gisa ulertu zuena, eta, batez ere, Morgan, honen lanak, *La sociedad Primitiva* (1877), komunismo primitiboaren analisiaren oinarria eman zuelarik. Era berean, aipatzekoak dira Phear, Maine, Lubbock eta Kovalevsky bezalako etnologo eboluzionisten lanen inguruan Marxek eginiko lanketak, bere azken urteetan sarritan erabili zituenak. Hortik ondorioztatzen denez, *Formen*-ak idatzi zirenean Marx eta Engelsek gizarte primitiboaz zuten ezagutza azalekoa zen. Hau da, ez zen gizarte “tribalen” ikerketa sakonetan oinarritzen, antropologia modernoa bere garapenaren hasieran baitzegoen³⁴.

Aipatu bezala, tradizio marxistaren baitan ekoizpen modu prekapitalista hauen inguruko balorazio ezberdinak daude, materialismo historikoan Marxek proposaturiko kategorien inguruan emandako eztabaidak islatzen dituztenak. Kategoriatu hauen inguruan gauzatu diren kritikek, edo nahikoak ez direnaren usteek, mota berriak sortu eta lantzea eragin dute. Era horretan, kategoria berri horiek “komunal primitiboa”

³⁰ JESSOP, «Mode of Production», 289. orr.

³¹ Idazkiak 1932an ezagutu ziren, David Riazanovek, Berlinen kontserbatutako Marxen ondare literarioa aztertzean berraurkitu zituenean. Fotokopiatu egin zituen, eta, ondorengo urteetan, zenbait aditu sobietarrek haien edukia deszifratu eta daktilografiatu zuten.

³² GLUIJ, «¿“Formaciones sociales...”».

³³ WICKHAM, “Aproximaciones...”, 92. or.

³⁴ HOBBSAWM, «Introducción», 29-30. orr.

kontzeptuan biltzen diren gizarte mota ezberdinen ikerketa zehatzagoa egitea dute helburu³⁵.

Lehen erakutsi bezala, abiapuntutzat hartutako marko historiografikoa osatua ez izan arren, lerro horretan koka daiteke Wickhamen planteamendua. Kategoria berri hauen adibide da, egin-eginean ere, NEMaren proposamena. Wickhamentzat, Marxek gauzaturiko modu ez-esplotatzaileen kategorizazioa ez da nahikoa, ondorioz, bere proposamena klaserik gabeko gizarteak sistematizatzeko ahaleginetatik sortua da. Horrela, *Framing the Early Middle Ages*-en, Marxek proposaturiko hiru ekoizpen modu aipatzen ditu soilik, esplotazio harremanetan oinarritzen dituenak: esklabista, feudala, eta kapitalista. Modu hauei laugarren bat gehitzen die, ez-esplotatzailea litzatekeena: NEM³⁶.

2. NEKAZARIEN EKOIZPEN MODUAREN OINARRI TEORIKOAK

Wickhamen proposamen teorikoaren kokapena gauzatu ostean, kategoriaren oinarri teorikoen analisiarekin jarraituko dut. Sarreran aipatu bezala, erreferentziazko lanak aztertu eta gero, hauek hierarkikoki antolatu eta Wickhamen ereduaren duten inplikazioa azaltzea du helburu atal honek. Burututako azterketan bi dira identifikatutako oinarri nagusiak: lehenik, M. Sahlinsen lana, eta, bigarrenik, E. Boserupena.

2.1. Marshall Sahlins: *Stone Ages Economics* (1972)

Wickhamen eredu idealaren eraikuntzan erreferentzia teoriko nagusia Marshall Sahlinsen *Stone Ages Economics* (1972) da³⁷. Sahlins, XX. mendearen bigarren erdialdean teoria antropologikoaren garapenean garrantzizko papera bete zuen antropologo estatubatuarra izan da (1930-2021). 1930. urtean Chicagon jaioa, Michigango Unibertsitatean antropologia ikasketak egin zituen, eta bertan lortu zituen lizentziatura eta masterra. 1954an doktoratu zen Columbiako Unibertsitatean. Tesian, Polinesiako gizartearen estratifikazio sozialaren eredu historikoak aztertu zituen. Columbian eskolak eman ondoren, Sahlins Michigango Unibertsitatara itzuli zen 1973ra

³⁵ DA GRACA, eta ZINGARELLI, «Introduction...», 22. or.

³⁶ WICKHAM, *Framing*, 261. or.

³⁷ SAHLINS, *Economía*. [Ingeleraz 1972]. Sahlins, Boserup eta Meillasouxen liburuen gaztelerazko bertsioak erabili ditut analisia gauzatzeko. Hala ere, historiografiaz ari naizenean jatorrizko izenburu eta argitarapen urteei egingo diet erreferentzia.

arte, Chicagoko Unibertsitateko irakasleen kidegoan sartu zen urtea. 1983an katedra jaso zuen Chicagon eta 1997an erretiroa hartu zuen. 2002an *Prickly Paradigm Press* argitaletxearen sortzaileetako bat izan zen, gizarte-zientzien arloko lan laburrak argitaratzen dituen³⁸.

Sahlinsek ikerketa antropologikoaren arlo ugari aztertu ditu, besteak beste, Mendebaldekoak ez diren gizarte tradizionaletako ekonomia politikoak, Ozeaniako etnografia historikoa, etnografia historikoari buruzko gai zabalagoak eta eredu antropologikoen eta Mendebaldeko tradizio intelektualen hipotesien arteko lotura inplizituak. Bestalde, gai oso ezberdinak aztertzeaz gain, jarrera teoriko desberdinetatik jorratu ditu arlo hauek. Adibidez, 1970eko hamarkadaren hasieran, Sahlinsek esplizituki baztertu zituen kulturaren teoria utilitarioak, aurretik erabili zituen teoria materialistak barne³⁹.

Stone Ages Economics ere, hamarkada hauetako eztabaiden emaitza dela esan liteke, diskurtso antropologiko ekonomikoan "formalisten" eta "sustantibisten" arteko eztabaida nagusi izan zen garaia⁴⁰, zeinetan, Sahlins bigarrenen artean kokatu zen⁴¹. Karl Polanyi bezalako substantibistei jarraituz, Sahlinsek gizarte prekapitalistak, mendebaldeko gizarte modernoekin alderatuta, kualitatiboki ezberdinak zirela babestu zuen, merkatu instituzionalizatuaren trukerik ezaren eta ekonomia erakunde soziopolitikoetan "ahokatuta" (*embedded*) egotearen ondorioz⁴².

Liburua hamar urtetan zehar idatzitako saioen bilduma da, non, Sahlins, «Ekonomia antropologiko bat formulatzen» saiatzen den, ekonomia primitiboan «interpretazio praktikoetatik aldenduz»⁴³. Garaiko marxista estrukturalista frantsesen lan berriek eraginda, Sahlinsek ekonomia prekapitalisten azterketa antropologikoan

³⁸ MOORE, *Visions*, 367. or.

³⁹ *Ibidem*, 365-366. orr.

⁴⁰ Antropologia ekonomikoaren eztabaida formalista-substantibistak bi etapatan garatu ziren: berrogeiko hamarkadan Herskovits eta Firthen eztabaidak Thurnwald eta Malinowskiren aurka, eta 60ko hamarkadan Leclair, Scheneider eta Burlingen eztabaidak Polanyi, Dalton eta Sahlinsen aurka (MOLINA, eta VALENZUELA, *Invitación*, 47. or.)

⁴¹ COOK, "Structural Substantivism'...", 355-379. orr.

⁴² O'LAUGHLIN, "Review...", 1361-1364. orr. *Embedded* terminoaren erabilera K. Polanyiaren lanetik (1957) hartzen du, eta autore honek, ekonomia gizarte-egituran txertatuta dagoen gizarteak (*embedded*) eta ez dagoen gizarteak (*disembedded*) bereizten ditu. Godelierrek (1974) zalantzan jartzen du bereizketa hori, esanez, *disembedded* terminoak ekonomikoaren eta ez-ekonomikoaren arteko barne-harremanik eza iradokitzen duela, eta harreman hau, ordea, gizarte guztietan ematen dela.

⁴³ SAHLINS, *Economía*, 9. or.

analisi ekonomiko formalak aplikatzeko alternatiba bat birformulatu zuen⁴⁴. Obra honen muina komunitate primitiboen ekoizpen-, banaketa- eta truke-nozioen ikerketan kokatzen da, ekonomiaren eta faktore soziokulturalen arteko loturatik abiatzen dena. Marko honen baitan kokatzen da, hain zuzen ere, Wickhamen oinarri izango den etxeko ekoizpen moduaren kontzeptuaren proposamena. Honen arabera, gizarte primitiboek ekoizpen modu bereizi bat izango lukete, familiakoa edo etxekoa, non ekoizpena unitate honen funtzioa litzatekeen.

2.1.1. Etxeko ekoizpen modua (EEM)

Orokortasunaren defentsatik abiatzen du Sahlinsek ekoizpen modu honen ezaugarrien azalpena, hots, datu enpirikoak antolakuntza ekonomikoaren baldintza orokorren baitan ulertu behar direla aldeztuz. Horretarako, eredu idealen metodoa erabiltzen du berak ere, kritika egiten dion arren. Bere proposamen teorikoaren funtsa Karl Bücheren “etxeko ekonomia independentea” litzateke, baina kasurako Marxen ideietara berregokitua eta etnografia eguneratuagoarekin osatua. Etxeko ekoizpen moduak, era berean, kategoria marxista estandarrak zeharkatzen ditu; izan ere, ehiztari-biltzaileen gizarteetan eta nekazaritza-gizarteetan aurki daiteke, baita etxe-taldearen forma ezberdinetan ere. Hau da, ez du guztiz zehazten ekoizpen modu honi loturiko aldi historikoa.

Sahlinsen EEMaren oinarri nagusia ekoizpen unitatea da, kasu honetan, etxe-taldeak osatzen duena. Hau da, etxe-unitatea da ekoizpen-instituzio nagusia, eta ekoizpen-modu jakin bati dagokio (teknologia eta lan-banaketa jakin batekin, helburu ekonomiko edo helburu bereizgarri batekin, jabetza-, gizarte- eta truke-modu espezifikoekin). Horrela, unitatearen barne-harremanak dira gizartearen barneko ekoizpen harreman nagusiak⁴⁵. Etxe-unitateak ekoizpenaren ardura dauka modu honetan: lan gaitasunaren antolaketa zein aplikazioa gauzatu eta helburu ekonomikoak zehaztearena. Lanaren antolaketa eta bere jardueraren terminoak eta produktuak,

⁴⁴ O’LAUGHLIN, “Review...”, 1361. or.

⁴⁵ Godelierrek ahaidetasunaren eta ekoizpen-harremanen arazoa planteatzen du, salatuz, sarritan leporatu izan zaiela gizarte ez-kapitalista guztietan ahaidetasun-harremanek gizarteko ekoizpen-harreman gisa funtzionatzen dutela esatea. Azaltzen duenez, nekazari-komunitateen barneko harreman sozial hierarkikoetan forma anitzak daude. Ideia honetatik abiatuz, hierarkia forma hauen presentzia edo absentziaren arabera, ahaidetasun harremanek kokapen ezberdina izan dezakete ekoizpenaren antolaketan. Hau da, ekoizpenaren marko orokorra osa dezakete, edota honen baitako alderdi berezi bat soilik (GODELIER, *Lo ideal*, 137-138. orr.).

nagusiki, etxeko erabakiak dira. Erabaki hauek etxeko beharrak asetzera bidean hartzen dira, hau da, ekoizpena ekoizleen mesedeetara antolatzen da.

Wickhamen NEMaren oinarrien bilaketan ekoizpen unitatearena litzateke lehen geralekua. Sahlinsen proposamenari jarraituz, bere ereduan ere «oinarrizko ekoizpen-unitatea etxe indibiduala da⁴⁶», eta *village*-ari kontrajartzen zaio. Honekin batera azaltzen du oso gutxitan kontrolatzen dutela herri osoek nekazaritza-ekoizpena. Dena dela, lanaren antolakuntza kolektiboak kooperazioa soilik esan nahi du, ekoizpenaren helburuak etxeko taldeen biziraupena izaten jarraitzen duelako.

Interesgarria da aipatzea, Wickham zein Sahlinsek Marxen ekoizpen moduaren kontzeptua erabiltzen badute ere, honen definizioaren oinarriek ezberdintasunak dituztela. Wickhamen definizioaren arabera, esplotazio harreman ezberdinek ekoizpen modu ezberdinak adierazten dituzte. Sahlinsentzat, ordea, ekoizpen instituzio nagusiak dira ekoizpen modu diferenteak adierazten dituztenak.

Era eskematiko batean hurrengoak dira identifikatu ditudan EEMaren ezaugarri nagusiak:

1. Sexuaren arabera banatutako lan gaitasun urria.
2. Teknologia sinplea.
3. Ekoizpenaren helburu mugatuak: biziraupenera bideratua.
4. Indar produktiboen erabilera ez-intentsiboa.
5. Jabetza hierarkizatua: pertsonen mendekotasunetik burutzen den gauzen gaineko eskubidea.
6. Unitatearen ekoizpenaren barne-zirkulazioa.
7. Naturazko egoera: unitateen sakabanatze absolutua, interdependentziarik eta autoritate komunik eza.

2.1.1.1. Sexuaren arabera banatutako lan gaitasun urria

Sahlinsen etxeko unitateak nolabaiteko ekonomia txiki bat eratzen du, eta era berean, ekoizpena familiaren barruko lan-banaketaren arabera gauzatzen da. Hau, gizartean osotasun gisa nagusi den banaketa litzateke, hots; lan-banaketa sexuala. Sexuaren araberako lan banaketa familia minimoaren bidez egikaritzen da, hau da, gizon eta emakume baten bitartez. Banaketa hau litzateke ekoizpen modu honen

⁴⁶ WICKHAM, *Framing*, 536-537. orr.

espezializazio ekonomikoaren forma nagusia⁴⁷. Ondorioz, ezkontza, talde ekonomiko orokor baten ezarpena litzateke, biziraupenerako ekoizteko eraturiko batura alegia.

Wickhamek ere, bere eredu idealaren ezaugarri gisa aipatzen du sexuen araberako lan banaketa. Beretzat, «genero-desberdintasunen ondorioz, emakumeek lurrean zein etxean lan egin dezakete (Afrikako zenbait lekutan bezala), edo, aitzitik, *exclude them from agricultural work altogether* (Europako zenbait lekutan bezala)»⁴⁸. Hala ere, Sahlinsék lan-banaketa sexuala ekoizpenaren antolaketaren oinarri gisa kokatzen du. Wickhamek, ordea, ekoizpen unitatearen barne-hierarkizazioaren ezaugarri bezala. Hain zuzen ere, etxeak berdintasunezko unitateak ez direnaren ideian txertatzen du ezaugarri hau. Honekin batera, unitateen barneko beste ezberdintasun batzuk aipatzen ditu, adibidez, etxean familiakoak ez diren kideak egon daitezkeela (sarritan askeak ez direnak), etxeko laguntzaile eta lur-langile gisa⁴⁹. Eredu idealaren proposamenean, beraz, familiaren barne-hierarkizazioaren baitan kokatzen du Wickhamek ez-askeen presentzia.

2.1.1.2. *Teknologia simplea*

Gizakiaren eta tresnaren arteko harreman primitiboa etxeko ekoizpen-modalitatearen baldintza bat da Sahlinsentzat. EEMan teknologiaren garapena mugatua da: tresnak sinpleak dira, etxe taldeek orokorrean maneiatzeko modukoak. Era berean, bitarteko hauen prestaketa etxe-unitatearen mailan egiten da, era unitarioan gehienetan.

Bere hitzetan «iraultza industrialak gertatu zen arte, giza lanaren produktua, agian, gehiago handitu da langilearen trebetasunari esker, bere tresnen perfektioari esker baino⁵⁰». Sahlinsen arabera, gizarte hauetan presio sozio-politikoa litzateke garapen ekonomikoaren bide egingarriena askotan.

⁴⁷ SAHLINS, *Economía*, 94. or. Sahlinsék, eredu idealean, ekoizpenaren lan-banaketan sexuaren aldagaia aipatzen du soilik. Hala ere, ikerketa etnografikoak ikertzen dituenean, adinaren aldagaiari ere egiten dio erreferentzia. Zentzu horretan, Wickhamen erreferentzietako bat den Claude Meillassouxen (1989) arabera, zahar-gazteen mendekotasun harremana etxeko ekoizpen moduaren harreman espezifikoa da. Nagusien boterea ondasunen birbanaketa, ezkontza aliantzen antolaketa eta belaunaldien arteko harremanak zuzentzen dituen zor printzipioan oinarritzen da.

⁴⁸ WICKHAM, *Framing*, 537. or.

⁴⁹ Goi Erdi Aroko Europako ezaugarri enpiriko bat etxeek aske ez ziren menpekoak izatea da hainbat lekutan, eta nekazarien modua indartsuagoa zen eskualdeek, hala nola, Irlandak, Ingalaterrak edo Eskandinaviak, horren ebidentziarik argiena ematen digute Wickhamen ustez. Aristokrazia irlandar eta anglosaxoien kasuan bezala, Wickhamen arabera hau ezin da klase terminoetan ulertu; libre ez ziren langileek familiako kide askeekin batera lan egiten zutelako.

⁵⁰ SAHLINS, *Economía*, 97. or.

Azken ideia honen islada nabari daiteke Wickhamek artisautza produktu landuak aristokraziaren presioarekin lotzen dituenen⁵¹. Aristokraziaren eskari-egiturak eragingo luke artisautza garatu bat egotea, eta ondorioz, kontrara, honen ahultasuna NEMaren markagailu litzateke⁵². Alderaketa hau da, nagusiki, NEMaren presentzia enpirikoa identifikatzeko irizpide nagusia, metodo arkeologikoaren bidez gauzatu dena. Beretzat, artisau-lanaren ahulezia nekazarien autonomia ekonomikoaren seinale potentziala da (ezarmenduen hierarkia makalarekin batera)⁵³.

Hala ere, teknologia sinplearen ideiarri jarraiki, eta eredu idealarekin kontrastean, Wickhamek honelako Goi Erdi Aroko gizarteetan teknologia sofistikuagoa dela dio, eta Europaz kanpoko gizarteetan arraroak diren nekazaritza intentsiboko praktikei lotuta agertzen dela⁵⁴. Hain zuzen ere, Goi Erdi Aroan nabarmen sinplifikatu ez zen ekonomiaren elementu bat nekazaritza-teknologia izan zela nabarmentzen du. Golde- nekazaritza ez zen bertan behera utzi; ur-erroten erabilera zabaldu ere egin zen (baita nekazarien modua nagusi zen eskualdeetan ere, Irlandan, esaterako), eta Frantziako iparraldeko nekazari gehienentzat eskuragarriak ziren karolingiar garaian. «Oro har, Goi Erdi Aroko nekazariak, oso autonomoak izan arren, nekazaritza-praktika nahiko intentsiboak zituzten»⁵⁵.

2.1.1.3. Ekoizpenaren helburu mugatuak: biziraupenera bideratua

EEMaren beste ezaugarri bat ekoizpena biziraupenera mugatua egotearena da. Etxe unitateak ez dira buruaskiak, eta, beraz, trukeak daude, baina hauek biziraupenera daude bideratuak. Beste era batera esanda, erabilera balioaren arabera ekoizpena gauzatzen dute unitate hauek, truke-ekintzetan ere, ez da truke-baliorik bilatzen. Sahlinsetzat EEMaren kategoria Marxek “zirkulazio sinplea” bezala definiturikoa da⁵⁶.

⁵¹ WICKHAM, *Framing*, 536. or.

⁵² *Ibidem*, 544. or.

⁵³ Artisautza espezializazio ezaren erakusle nagusietakoa zeramika litzateke Wickhamentzat. Espainiaren kasuan, hego-ekialdeko Alicanteko kostakoa da adibide bat. Bertan, VII. mendearen amaieratik IX. mendearen amaierara arte, zeramika gehiena eskuz egin zen, erromatar osteko Mediterraneoan ohikoa ez zen ekoizpen sinplifikazioa erakusten duena. Hau, nekazarien moduak menderatutako azpieskualde bat izango litzateke (*Ibidem*, 546. or.).

⁵⁴ LARREA, “Estudiar el estado...”, 186. or.

⁵⁵ WICKHAM, *Framing*, 547. or.

⁵⁶ Marxen zirkulazio sinplearen kontzeptua ekonomia prekapitalistak ezaugarritzeko eurrez erabili da. Zentzu horretan, Cesar Ruiz Sanjuáen (2013) kritika aipatzekoa da, zeinak, zirkulazio sinplearen kontzeptua ekoizpen modu kapitalista garatuaren esfera abstraktu bat dela dioen, beraz, ez harreman ekonomiko prekapitalista bat. Marxismoaren barruan nagusitzen den interpretazioak, aldiz, zirkulazio sinplearekin Marxek gizarte prekapitalista forma baten funtzionamendua azalduko lukeela dio.

Biziraupenera bideraturiko ekoizpen honetan, «gauza desiragarrien kopuru moderatua» ekoizten da, eta hauek, erabilgarritasun zehatzaren izaera izaten dute. Ondorioz, etxeko ekonomiak erreprodukzioa bilatuko luke soilik. Gainera, kontsumorako ekoizpeneko sistema honetan lanak mugak jartzeko aukerak ditu: etena eta irregularra da. Sahlinsentzat, erabilera balioen ekoizpen bat litzateke, beraz.

Horrenbestez, EEMaren izaera azpi-produkzioarena da, hau da, etxeko sistemak helburu ekonomiko mugatuko bidea ematen du. Helburu mugatu hauek, bizimodu baten baitan kualitatiboki definitzen dira, eta ez aberastasun abstraktu bati lotuta. Honen ondorioz, lana ez da intentsiboa: aldizkakoa da, eta aukera kulturek eta eragozpenek eragindako etete mota guztiak jasan ditzake. Beste modu batera esanda, soberakinaren sorrerari kontrajarritako ekoizpen modu bat da. Biziraupenerako ekoizten denez, helburu hau betetzean ekoizpenak gelditzeko tendentzia dauka⁵⁷.

Idea hauen eragin garbia identifikatu daiteke Wickhamen nekazarien moduaren proposamenean. Batetik, soberakinaren metaketa zuzenean lotzen du ekonomia aristokratikoarekin eta egitura ekonomiko konplexuagoen garapenarekin. Horrela, NEM tendentzia honi kontrajarrita aurkezten duenez, soberakinaren ekoizpenaz kanpo agertzen zaigu⁵⁸. Eredu idealaren ezaugarritzean, nekazaritza hazkundearen aukera baztertuta gelditzen da logika honen ondorioz, mekanismo ezberdinek ekoizpenaren hazkundera ekiditen baitute: soberakinak ez dira metatzen, baizik eta dohain, kontra-dohain, *potlach* eta elkarrekiko laguntzaren zirkuituetan sartzen dira⁵⁹.

Bigarrenik, eredu idealaren ezaugarrietan, Sahlinsek planteaturiko lanaren aldizkotasunaren ondorioak nabarmentzen ditu Wickhamek. Hau da, logika ekonomiko horren baitan, «denbora librea lehenesten dute soberakinaren ordezkariak», eta ondorioz, askotan egon daitezke behar adina ekoizten ez duten etxeak zein gosea pasatzeko arriskua duten komunitate osoak⁶⁰.

Interpretazio honen jatorria Engelsen lanetan dago, eta marxismo ortodoxoaren zatirik handienak mantendu du.

⁵⁷ SAHLINS, *Economía*, 98-102. or.

⁵⁸ WICKHAM, *Framing*, 536. or.

⁵⁹ LARREA, “Estudiar...”, 186. or.

⁶⁰ WICKHAM, *Framing*, 538. or.

2.1.1.4. Indar produktiboen erabilera ez-intentsiboa

EEMaren hurrengo ezaugarria A. V. Chayanoven *La organización de la unidad económica campesina*⁶¹ lanetik hartzen du Sahlinsek: lan-kontsumo balantzearena, hain justu ere. Chayanov (1888-1937) errusiar zientzialari agronomo eta idazlea izan zen, Moskuko Nekazaritza Institutuko ikasle eta, ondoren, irakasle izandakoa. Bere lan nagusiak nekazaritza kooperazioaren teoria eta praktikaren eta nekazaritza-ekoizpenaren antolaketaren ingurukoak dira.

Aipaturiko lanean, garaiko errusiar nekazarien etxeko ustiapen-unitatearen antolaketa aztertzen du Chayanovek, hau da, soldatapeko lan-indarrak erabiltzen ez duen nekazari unitatea. Horrela, familiako ustiategiaren indarra kapitalistarekin kontrajartzen du, baina antolakuntzaren eta ekoizpenaren mailan, hau da, etxeko esplotazioa soldatapeko lanean oinarritutako esplotazioarekin kontrajartzen du. Bere obra guztiz aldentzen da pentsamendu marxistaren bereizgarri diren oinarri teorikoetatik⁶².

Chayanoven teoriaren arabera, zenbat eta txikiagoa izan langileen proportzio erlatiboa, orduan eta handiagoa da etxeko ongizate-maila jakin bat ziurtatzeko egin behar duten lanaren kopurua. Alderantziz, etxeko unitatean lan-gaitasun erlatiboa handiagoa denean kideek lan gutxiago egiten dute. Horregatik, etxeko sistemaren mugak gizartearen potentzialaren arabera ere ezartzen dira, gehiengoaren eskura egon behar dute, eta ondorioz, gutxiengo eraginkorrenaren potentzialtasuna ez da aprobetxatzen⁶³. Berritri esanda, gizartearen ahalmen globala baina txikiagoak diren mugak ezartzen dira ekoizpenean.

Teoria honek aurreko ezaugarria berretsiko luke, alegia, biziraupenaren logikak ez duela etxe unitatearen efikazia guztiz bultzatzen, gehiengoaren mailan jartzen duelako. Honek ere esan nahi du ez dagoela soberakinaren ekoizpenerako konpulsiorik. Hortaz, nekazarien motibazio nagusia bizirauteko premien eta premia horiek betetzeko lan-inbertsioaren arteko balantzean mugituko litzateke⁶⁴.

⁶¹ Esparru marxistan nagusi ziren ikuspegi metodologikoarekin eta analisiaren helburuekin kontrastean, XX. mendearen lehen laurdenean nekazaritzaren arloko ikerketa- eta pentsamendu-korronte indartsu bat sortu zen, zeinaren kezka familia-ustiategien funtzionamendu- eta kudeaketa-mekanismoen ezagutzan sakontzea baitzen, A. V. Chayanov eskola honen adierazgarri nagusia zelarik. (PÉREZ TOURINO, *Agricultura y capitalismo*, 51-52. orr.)

⁶² MARTÍNEZ ÁLVAREZ, *Tensiones*, 35-36. orr.

⁶³ SAHLINS, *Economía*, 103-107. orr.

⁶⁴ Lan-kontsumo balantze hau nekazarien gizarteak soziologikoki eta antropologikoki ezaugarritzeko elementu erabakigarria izan da. Honek, nekazarien ekonomiaren inguruko teoria espezifiko oso bat sortu

Wickhamen nekazarien modu idealean, nekazaritzako teknologia nahiko sinplea da, eta lanaren intentsitatea txikia. Nekazari komunitateetako kideek ez dute hain gogor lan egiten, izan ere, unitate horietan ez da erreprodukziorako behar dena baino gehiago ekoizten⁶⁵. Esan daiteke, beraz, Sahlinsen EEMaren intentsitate txikiaren printzipioa baliatzen duela Wickhamek, hau, era berean, Chayanoven premisan oinarritzen dena: nekazarien lan-indarraren azpi-ustiapenean.

2.1.1.5. Jabetza hierarkizatua

Sahlinsek «“jabetza” hierarkizatua» bezala izendatzen duena litzateke EEMaren beste bereizgarrietako bat. Batetik, etxeko unitateak ekoizpen-baliabideekiko lehen mailako harremana mantentzen du. Ekoizleek egunez egun finkatzen dute lurra nola erabili, eta haien gain erortzen da produktuaz jabetzeko eta xedatzeko lehentasuna: ez dago eskubiderik etxe unitateari biziraupena legitimoki kendu diezaiokeenik. Etxeak⁶⁶, beraz, jabe den talde edo komunitateko kide gisa, bere biziraupenerako baliabide sozialen proportzio egoki bat zuzenean eta modu independentean esplotatzeko eskubidea dauka. Wickhamen ereduan ere, etxeak, zuzenean kontrolatzen duen lurra lantzen du, «eskuarki, modu independentean jaso, batzuetan, herriko komunitateak edo *lineage* zabalago batek esleitua⁶⁷».

EEMan, ekoizleek beren bitarteko ekonomikoak edukitzeak baztertu egiten du bitarteko hauen gutxi batzuen kontrola, beste asko mendeko bilakatuko lituzkeena. Beraz, gauzen gaineko eskubidea, hots, boterea, ekoizpen bitartekoen kontrolatik baino ekoizleen gaineko nagusitasunetik dator. Kasu honetan, gizarte primitiboetan "jabe" handienak bigarren mailako harremanean mantentzen dira ekoizpenarekiko, eta jabetza hierarkizatu hau familiarri gainjartzen zaio. Buruzagitza (*cacicazgo*) deitzen dio jabetza sistema honi: pertsonen mendekotasunetik aurrera gauzatzen den gauzatarako

zuen, beste ekoizpen modu batzuetatik berezia. Adibidez: Chayanov (1966); Galeski (1972); Kerblay (1971) eta Scott (1976). (TEJERIZO GARCÍA, 61. or.). Wickhamen oinarri teoriko zuzenak ez badira ere, erabili dituen autoreen bitartez iristen dira hauen ideiak bere hitzetara.

⁶⁵ WICKHAM, *Framing*, 537. or.

⁶⁶ Aipatzekoa da Sahlinsek lanean zehar “etxeko taldea” “familiarrekin” identifikatzen duela, eta, beraz, familiarri ari den une askotan etxe-unitateari egiten diola erreferentzia. Hala ere, parekatze honen autokritika egiten du, etxe-unitatearen forma espezifikoen aniztasuna azalduz (Sahlins, *Economía*, 93, or.).

⁶⁷ WICKHAM, *Framing*, 537. or. Da Gracak (2015) ekarpen interesgarria egiten du Wickhamen nekazarien moduaren eta Marxen ekoizpen modu germaniarrarenaren jabetzaren formaren antzekotasunak azaleratuz. Besteak beste, ezaugarri hauek aurkezten ditu pareko gisa: etxe indibiduala unitate ekonomikoki independentea da; zuzeneko ekoizleak jabe pribatuak dira; komunitatea ez da estatu gisa existitzen; jabetza komunala jabetza indibidualaren osagarri bat besterik ez da; ustiapena zatitu egiten da eta ez du lan komunalik behar balorizatzeko (DA GRACA, «Peasant...», 164. or.).

eskubidea. Hau da, joko politikoa ekoizpenetik kanpo kokatzen da, elikagaiak edo produktu bukatuak bezalako sinboloekin. Orduan, normalean, eskala sozialan igotzeko modu efikazena (eta jabetza-eskubiderik irrikatuena) gauzak oparitzea izaten da⁶⁸.



1. Irudia: Sahlinsen EEMan jabetzaren egituraketa⁶⁹.

NEMan ere eskala sozialean igotzeko edo bertako estatusa mantentzeko modua eskuzabaltasunarena da. Opariak eta jai kolektiboak botere-ekintzak dira, jendeak elkarrekikotasunaren bidez negoziatzen du sozialki, tokian tokiko posizioa handitzeko asmoz⁷⁰. Alabaina, nire iritziz, Goi Erdi Aroko ekonomietan, Wickhamen jabetzaren egitura ez dator guztiz bat Sahlinsek proposatutakoarekin. Alde batetik, elite hauek ez ziren elite inguruko babesagatik soilik, beste batzuen lanetik bizi ziren askotan, batez ere, ez-askeenetik. Bestetik, tokiko eliteetako kideak lur gehiago eta beste baliabide batzuk izateagatik bereizten ziren (Irlandan, adibidez). Islandia erdialdean ere, adibidez, buru politiko-erlijiosoaren posizioa jaraungarria zen, eta normalean aberastasunarekin lotzen zen⁷¹. Beraz, kasu askotan, gauzen gaineko kontrol zuzena botere politikoaren bitarteko izango zen, Sahlinsen eskematik ezberdintzen dena.

2.1.1.6. Parentesi bat: NEM eta esklabotzaren arazoa

Arazo bat identifikatu daiteke azken ideia honetatik abiatuz, ez baitator bat aurretik aipaturiko Wickhamen esklabotzaren funtzioarekin. Izan ere, honek ez-askeen presentzia familiaren barneko ezberdintasunen baitan ulertzen du. Goi Erdi Aroaren kasuan, ordea, esklabotza etxe-unitatetik haratagoko hierarkizazioaren elementu gisa azaltzen du, eliteen

⁶⁸ SAHLINS, *Economía*, 108-110. orr.

⁶⁹ *Ibidem*, 109. or.

⁷⁰ WICKHAM, *Framing*, 539. or.

⁷¹ *Ibidem*, 542-543. orr.

ezaugarri bezala alegia⁷². Hau da, analisiaren puntuaren arabera, esklaboen presentzia familiarekin edo eliteekin lotu daiteke Wickhamen proposamenean: lehen kasuan, eredu idealean eta, bigarrenean, berriz, Goi Erdi Aroko gizartean.

Nekazari familietako ez-askeez ari denean Wickhamek ez du “esklabo” terminoa erabiltzen, *unfree* hitzaren erabilerara mugatzen da. Argudiatzen duenez, *servi*, *ancillae* eta *mancipia*-k ez dute zertan ekoizpen modu esklabistaren arabera antolatuta egon. Gainera, Wickhamentzat, esklabo hauek nekazari gisa zuten autonomia haien askatasun legalaren falta baina handiagoa zen. Horregatik aukeratzen du “esklabo” hitza ez erabiltzea nekazarien etxeetako menpeko populazioari erreferentzia egiteko, terminoa ekoizpen modu esklabistaren egoeretara mugatuz⁷³.

Edozein kasutan, nekazari-etxeetako esklaboen presentzia ez du ez klase terminoetan ezta esplotazio gisa ulertzen. Klase esplotazio bilakatzeko baldintza, Wickhamen arabera, familiako kideak lan egiteari uztea litzateke, hau da, ez-askeen lanetik bizitzea. Horregatik, ekoizpen modu esklabista etheen barne-ezberdintasunen ondorio posible bat izan zen arren, «garatu ez izanak nekazarien buruaskitasunak Erdi Aroko tokiko ekonomietan zuen indar sendoa frogatzen duela» dio⁷⁴.

Kontutan hartzekoa da, aurretik aipatu bezala, Wickhamek esplotazio harreman ezberdinek ekoizpen modu ezberdinak adierazten dituztela ulertzen duela. Hau da, bere eskeman esplotazio forma batek sistema ekonomiko oso bat egituratzeko gaitasuna daukala. Logika honi jarraituz, ez-aske hauek esklaboak balira esplotazio harreman bat egongo litzateke, eta, horrenbestez, ekoizpen modu esklabista adieraziko luke honek. Wickhamek, ordea, esplotazio harreman baten existentzia ukatzen duenez, etxeo esklaboen presentziak lekua dauka klaserik gabeko nekazari-gizartearen eskeman.

Esklaboen presentziaren inguruko eztabaidak ez dira berriak ez erdiarolaritzaren eta ezta antropologiaren alorrean ere. Zentzu horretan, Maurice Godelier antropologoak gizarte prekapitalistetako esklabotzaren arazoa planteatzen du *Economía, fetichismo y*

⁷² Wickhamen arabera, estatus lokala bilatzen duten pertsonen gehiago ekoiztu dezakete, elkarrekikotasunaren bitartez soberakina banatu eta maila sozialean igotzeko. Ez-askeak edukitzeak, beraz, abantailak emango lituzke logika honen baitan.

⁷³ *Ibidem*, 262. or. Nik “esklabo” hitza erabiltzea erabaki dut bi arrazoi nagusigatik: lehenik, Goi Erdi Aroko *unfree* hauek juridikoki esklaboak zirelako, eta bigarrenik, Wickhamen eredu diren antropologia ekonomikoko lanetan “esklabo” erabiltzen dutelako.

⁷⁴ WICKHAM, *Framing*, 544. or.

religión en las sociedades primitivas (1978) lanean⁷⁵. Azaltzen duenez, gizarte prekapitalistetako esklabotza ez zen ekoizpen harreman nagusia, eta era berean, ekoizpenaren oinarria ez zen esklaboen lan-indarrean kokatzen⁷⁶. Godelierrek, ordea, esplotazio-ezaren ideia baztertzen du: «klaserik gabeko gizarteen baitan gizakien arteko esplotaziorik ez dagoenaren ideia gezurtatu egiten dute egitateek». Antropologoarentzat, ekoizpenean parte hartzen ez duen gizabanako multzo batek zuzeneko ekoizleen lanari esker irauten duenean eta, aldi berean, funtsezko ekoizpen-bideak kontrolatzen dituenan, bada klase-gizarte bat. Wickhamek ez bezala, esplotazio harremanak eta esplotazioan oinarrituriko ekoizpen moduak banaturik ulertzen ditu. Hots, Godelierrentzat gizarte prekapitalista batean esplotazio harremanen existentziak (esklabotza kasu honetan) ez du *de facto* klase-gizarte bat (ekoizpen modu esklabista) adierazten.

Era berean, gai honetan identifika daiteke Wickhamek Meillassouxen lanetik hartzen duen erreferentzia bakarra, esklaboen presentziari dagokiona, alegia. Hala ere, Meillassouxek ez du esklabotzaren gaia gehiegi jorratzen *Femmes* lanean. Hau da, arlo honen inguruan gehiago sakondu du beste obra batzuetan⁷⁷.

2.1.1.7. Unitatearen ekoizpenaren barne-zirkulazioa.

EEMaren logikara bueltatuz, ekoizpenean eta jabetzan ematen den etxe bereizketa edo autonomia hori, unitateen ekoizpenaren barne-zirkulazioarekin osatzen da, barne-helburuekin bat datorrena. Horrela, ondasunen mugimendu zentripeto bat ematen da: ekonomia eta etxeko unitatea bereizten dituen, baina, aldi berean, barne-elkartasuna berresten duena. Hori horrela, etxeak, nolabaiteko ondasun eta zerbitzu komunitatea osatzen du: lan banaketa sexuala gainditzen duena, aldean bereizketa ezabatuz osotasunaren koherentziaren alde. Hots, unitatearen barne-zirkulazioa taldea eratzen duen jarduera da. Bestetik, barne-zirkulazio honen bitartez familia-unitateak guztiz bereizten dira besteetatik. Horrela, komunitateak etxeko zirkulua ixten du, eta zirkunferentzia hori muga sozial eta ekonomikoaren lerro bihurtzen da.

⁷⁵ Wickhamek ordea, *Racionalidad e irracionalidad en Economía* (1974) aipatzen du soilik (WICKHAM, *Framing*, 536. or.).

⁷⁶ GODELIER, *Economía*, 98. or.


⁷⁷ Adibidez: MEILLASSOUX, Claude. «Modalités historiques de l'exploitation et de la surexploitation du travail». In Íd. *L'économie de la vie. Démographie du travail*. Lausanne: Page Deux, 1997.

2.1.1.8. Naturazko egoera.

Sahlins-ek, ekoizpen unitateen arteko logika azaltzera bidean, aparientzia eta esentziaren arteko bereizketa egiten du. Honen arabera, EEM, esentzian, anarkia moduko bat da, naturazko egoera bat: a) ez du eskatzen etxe unitateen arteko harreman material edo sozialik; b) unitateak besteekiko autonomian antolatzen dira; c) ematen den elkartasuna mekanikoa da; d) lan banaketa unitateen barruan ematen da soilik; e) ez dago familia-unitateak autonomiaren zati bat utzi eta integratzera behartzen dituen ezer.

Beraz, gizarte primitiboaren baldintza adierazgarri bat botere publiko eta subiranorik ez izatea da. Indarra deszentralizatuta dago eta pluraltasunean gauzatzen da, trinkotasun sozialik ez dago, eta ez da Estaturik existitzen⁷⁸. Ideia hau bat etor daiteke Wickhamen proposamen teorikoarekin, Estatuaren indarra eta eraikuntza aristokraziaren garapenarekin lotzen duena⁷⁹.

Itxuraz, ordea, indar eta antolamendu handiagoak kontrajartzen direla ematen du, familiak interes orokor baten menpe antolatzen dituztenak. Baina integrazio-indar handi hauek ez dira ekoizpenaren harreman nagusi eta berehalakoetan ematen Sahlinsen aburuz. Ondorioz, EEM naturaren egoera bezalakoa da, biziguneak erabat sakabanatzea eragiten duena. Sakabanatze absolutua interdependentziarik eta autoritate komunik eza delako, eta hauek dira ekoizpena antolatzeko modua. Ondorioz, etxeko zirkuluaren barruan mugimendu erabakigarriak zentripetoak badira, etxeko unitateen artean zentrifugoak dira.



2. Irudia: Sahlinsen EEMaren ekoizpen unitateen barne eta kanpo indarren irudikapena⁸⁰.

⁷⁸ SAHLINS, *Economía*, 204. or.

⁷⁹ WICKHAM, *Framing*, 304. or.

⁸⁰ Irudikapen hau Sahlinsen azalpenak jarraituz sortu dut.

Interes soziopolitikoek ekoizpenaren intentsifikazioa bultzatzen duten bezala, ahaidetasunak indar ekonomiko zentrifugoak sustatzen dituen presioa egiten du, sistemaren ezaugarri diren indar ekonomiko zentripetuen aurka. Hau da, etxe-unitateak ez dira buruaskiak, eta trukera jotzeko beharra daukate. Zein modutan ematen dira, bada, elkartruke hauek Sahlinsen arabera?

2.1.1.9 Sahlinsen truke primitiboa

Economía de la Edad de Piedra-ko “*Sobre la sociología del intercambio primitivo*” kapitulua 1965. urtean argitaratu zen lehen aldiz aparteko lan bezala. Esan daiteke, sustantibisten salaketei egindako erreplika dela, estrukturalismoari aurre egiteko lehen saiakera izateaz gain. Trukearen teoria, bereziki elkarrekikotasunari buruzko garapen teorikoa, antropologiak pentsamendu sozialari egiten dion ekarpen nagusienetakoa da⁸¹. Karl Polanyik eta Claude Lévi-Straussek truke moten banaketa hirukoitzak proposatu zituzten⁸². Polanyik elkarrekikotasunean, birbanaketan eta merkatuan oinarritutako gizarteak bereizten zituen; Lévi-Straussek argudiatzen zuen gizarte guztiak, beren funtsean, hiru truke-mailaz osatuta zeudela: ondasunak (ekonomia), emakumeak (ahaidetasuna) eta hitzak (hizkuntza). Sahlinsek, nozio hauek hartu eta uztartu egin zituen lan honetan⁸³.

Orokorrean, etnografikoki erregistratutako transakzio ekonomikoen multzoa bi motatan banatzen du Sahlinsek:

1. Komunitatea edo birbanaketa: Barruko harremana da, talde baten ekintza kolektiboa. Komunitateak gizarte-erdigune bat ezartzen du, non ondasunak bildu eta hortik kanporantz doazen, bai eta gizarte-muga bat ere, zeinaren barruan pertsonak edo taldeak lankidetzan harremantzen diren. Mugimendu zentripetoak.
2. Elkarrekikotasuna: Bi alderen ekintza eta erantzunaren arteko harremana da, dualtasun bat. Mugimendu zentrifugoak.

⁸¹ Malinowski, Mauss edo Lévi-Straussen lanek elkartrukearen gaia lantzeaz gain, luze aztertu zituzten trukearen esanahiak eta moduak, bai eta gizarte-ordenean, kulturaren eta balioaren erreprodukzioan eta politikan zituzten eraginak ikertu, zein gizarte-zientzien berezko ezagutzaren baldintzak ulertzen lagundu ere. Horrela, Sahlinsen helburuetara joz, elkarrekikotasunaren azterketa erabakigarria izan zen gizarte primitiboen izaerari eta ahaidetasunak horietan duen eginkizunari buruzko zenbait ideia loratzeko (LOMNITZ, “Sobre reciprocidad...”, 311-339. orr.)

⁸² Ikus: POLANYI, Karl. *The Great Transformation*. New York: Rinehart, 1944.; LÉVI-STRAUSS, Claude. *Las estructuras elementales del parentesco*. Barcelona: Paidós, 1949.

⁸³ GRAEBER, «Foreword...», 9-19. orr.

Unitateen arteko trukeak, beraz, elkarrekikotasunaren bidez gauzatzen dira, eta Sahlinssek 3 mota bereizten ditu:

Elkarrekikotasun orokortua	Elkarrekikotasun orekatua	Elkarrekikotasun negatiboa
<p>-Altruistatzat uler daitezkeen transakzioei egiten die erreferentzia, emandako laguntzaren ildoan kokatzen diren transakzioei</p> <p>-Elkarrekikotasun honetan oso zaila da zuzeneko ordainsari materiala jasotzea.</p> <p>-Ondasunak jasotzeko elkarrekikotasun betebeharrak ezartzen du: emaileak behar duenean eta hartzaileak ahal duenean ematen dena.</p>	<p>-Zuzeneko trukea: oreka zehatz batean jasotako gauzaren baliokidea atzerapenik gabe ematea.</p> <p>-Orokortua baino ekonomikoagoa da.</p> <p>-Harreman sozialak objektu materialaren fluxuan oinarritzen dira.</p>	<p>-Zorrik gabe ezer lortzeko ahalegina da.</p> <p>-Truke formarik inpersonalea, ekonomikoena.</p> <p>-Parte-hartzaileek elkarren aurkako interesak dituzte aurrez aurre, eta ahalik eta baliagarritasunik handiena lortzen saiatzen dira, bestearen kontura.</p>

Azken ekarpen hau izango da, beraz, NEMaren oinarri teorikoetan aztertutako dudak Sahlinsi dagokion azken erreferentzia. Wickhamen eredu idealean, etxeko ekonomiak lotuak daude elkarren artean laguntzeko, eta ondasunak trukatzeko dituzte lotura sozialak indartzeko zein ekoizten ez dutena lortzeko. Hau da, harreman sozialen sarean txertatuta daude baina beharrezan ere oinarritzen dira. Truke hauek, beraz, elkarrekikoak dira. Ideia hau aurretik aipaturiko soberakinen metaketa ezarekin lotzen da, hauek truke zirkuituan sartzen direlako. Era berean, nekazarien moduan kanpo-trukerako merkatuak daude, baina bazterrekoak dira gehienetan⁸⁴. Hortaz, Wickhamek, era argi batean aplikatzen du Sahlinsen irizpidea: gizarte primitiboetako etxeek trukera jo behar dutela; etxeko ekoizpen moduek elkarrekikotasuneranzko joera dutela; baina truke hauek funtzio instrumentala dutela soilik.

⁸⁴ WICKHAM, *Framing*, 537. or.

2.2. Ester Boserup: *The Conditions of Agricultural Growth* (1965)

Wickhamen NEMaren bigarren oinarri nagusia Ester Boserupen *The Conditions of Agricultural Growth* (1965)⁸⁵ da. 1910eko maiatzean Kopenhagen jaioa, Ester Borgesen 1935ean Ester Boserup bezala graduatu zen *Candidatus Politices* izeneko titulu batekin; ekonomia teorikoa, soziologia eta nekazaritza-politika bateratzen zituen. Danimarkako gobernuarentzat eta Nazio Batuen Europarako Ekonomia Batzordearentzat lan egin zuen nekazaritza-politika komertzialaren arloan. 1960ko hamarkadan aholkularitzan eta hainbat batzordetan aritu zen bere lanik garrantzitsuenak idazten zituen bitartean: *The Conditions of Agricultural Growth* (1965), *Woman's Role in Economic Development* (1970) eta *Population and Technology* (1981). Obra hauek eragin handia izan zuten diziplinarteko ikerketan eta, hortaz, azterketa akademiko sakonen ardatz izan ziren. Era berean, hiru ohorezko doktoretza jaso zituen lan hauekin: Nekazaritzan, Ekonomia Zientzietan eta Giza zientzietan. Genevan hil zen, 1999ko irailean⁸⁶.

Boserupen lanek XX. mende erdialdean nagusi ziren populazioaren, lurraren erabileraren eta nekazaritza produktibitatearen inguruko ideiak zalantzan jarri zituzten. Horrela, beste faktore batzuekin batera, aldagai hauen birkontzeptualizazioa hastea eragin zuen, eta oraindik ere, bere ikuspuntu teorikoak posizio nabarmena izaten jarraitzen du landa garapenari buruzko eztabaidetan. Halaber, bere ideiak funtsezkoak dira diziplina anitzetan: Historian, Antropologian, Ekonomian zein Zientzia Biofisikoetan, besteak beste⁸⁷.

Egin-eginean ere, aztergai dudan liburuarekin sartu zen Boserup nazioarteko diziplinaz haraindiko agertokian. Lan labor honen bidez funtsezko ideia multzo bat eskaini zuen, besteak beste, garaiko ideia neomalthusiarrei aurka eginez⁸⁸. Hainbat argitaletzek uko egin zioten bere liburua publikatzeari, baina beste gizarte zientzia batzuek gogo biziz hartu zuten, batez ere, nekazari txikien biziraupeneko nekazaritza

⁸⁵ BOSERUP, Ester. *Las condiciones*. [Ingeleraz 1965].

⁸⁶ TURNER, eta FISCHER-KOWALSKI, «Ester Boserup...», 3-4. orr.

⁸⁷ BEHRMAN, MEINZEN-DICK, eta QUISUMBING, «An Interpretation...», 189. or.

⁸⁸ Teoria malthusiarren (1789) printzipio nagusia hau da; giza populazioaren hazkundeak lurraren baliabideen ekoizpen-ahalmena gaunditzeko joera duela. Horren ondorioz, baliabideek zuzenean murriztuko lituzkete biztanleriaren hazkunde eta tamaina, eta kontrol "positiboak" (goseteak eta hilkortasuna areagotzea) edo prebentziozkoak (ezkontza atzeratzea eta familiaren tamaina mugatzea) biztanleriaren hazkunde murrizten lagunduko lukete. Bere ikuspegitik, teknologia eta ingurumena (lurraren baliabideei dagokionez) aldagai independentetzat hartzen dira, eta batera eragiten dute biztanlerian, batez ere, honen hazkunde eta tamainari dagokionean (MARQUETTE, *Turning*, 2. or.).

sistemez arduratzen ziren antropologiaren eta geografiaren atalek. Geroztik, *The Conditions of Agricultural Growth* argitaletxe ugari argitaratu dute, eta gaztelerara, frantsesera, suedierara, japonierara eta estonierara itzuli dute ⁸⁹.

2.2.1. Nekazaritzaren garapenaren baldintzak


The Conditions lanean, industriaurreko nekazaritza-gizarteen epe luzeko garapen-dinamika aztertzen du Boserupek. Lanean zehar “eredu historiko” bat garatzen du, biztanleriaren hazkundearen eta nekazaritzaren garapenaren arteko lotura aztertuz, nekazaritza mugikorretik iraunkorrerako trantsizioari lotuta. Azterketa hau egituratzeko bost laborantza sistema bereizten ditu, luraren erabileraren intentsitatearen arabera banatuak: 1) oihaneko luberri bidezko laborantza (*forest-fallow cultivation*), 2) basaberako luberri bidezko laborantza (*bush-fallow cultivation*), 3) lugorri laburreko laborantza (*short-fallow cultivation*), 4) urteroko uzta (*annual cropping*) eta 5) uzta anizkoitza (*multi-cropping*) ⁹⁰.

Lanaren ideia nagusiak ondorengoak dira: presio demografikoa handituz doan heinean, luraren ustiatze-ereduek metodo estentsiboetatik metodo intentsiboetara eboluzionatzeko joera dute. Halaber, populazioaren hazkundera gertatzen den kasuetan ekoizpena luraren emankortasuna handitzearen bidez handitu daitekeela oharteman zuen, baina lan gehiago eginez. Gainera, berrikuntza teknologikoa populazio-dentsitatearen araberakoa dela ere azaltzen du Boserupek.

Horrela, aipaturiko Malthusen kausalitatea alderantzikatu zuen, argudiatuz, populazioaren presioaren gorakadak teknologien eta luraren erabilera-estrategien garapena eragiten duela. Nekazaritza-intentsitatea, beraz, populazio-dentsitatearen ondorioz handitzen da: hazkunde demografikoa laborantza metodoen aldaketaren kausa litzateke, eta ez alderantziz.

⁸⁹ TURNER eta FISCHER-KOWALSKI, «Ester Boserup...», 4. or.

⁹⁰ BOSERUP, *Las condiciones*, 25-27. orr.



P = Populazioa T = Maila teknologikoa eta okupazio-egitura.
I = Ingurumena

3. Irudia: Populazioaren, ingurumenaren eta teknologiaren interrelazioa Boserupen teorian⁹¹.

Wickhamen NEMaren eraikuntzan Boserupen ideiak oinarritzko erreferentzia dira, batik bat demografiaren eta teknologiaren garapenaren esparruan. Ondorengo lerroetan, beraz, Wickhamek bere eredurako hartutako Boserupen laneko ideiak identifikatu eta parekatuko ditut.

2.2.1.1. Maila teknologikoaren eta ustiatze-ereduen garapena

Arestian esan bezala, Boserupetzat lurraren ustiapen intentsiboagoetara jotzeko joera populazioaren hazkunderari emandako erantzuna litzateke. Horregatik, dentsitate maila kritikora iritsi ez den eskualde batean, biztanleek laborantza-metodo intentsiboagoak zein nekazaritza-tresna garatuagoak ezagutu ditzaketen arren, horiek ez erabiltzea aukera dezakete, harik eta, populazioaren tamaina maila kritikora iristen den arte. Hortaz, aldaketa tekniko batzuk populazio dentsitate maila batera iristean gerta daitezke soilik. Honek, ordea, ez du esan nahi demografia hazkundera gertatzen den aldi guztietan aldaketa teknikoa jazotzen denik⁹².

Liburu honen beste helburu nagusietako bat hurrengo tesia finkatzea da: biztanleriaren hazkundera nekazaritzaren aldaketa teknologikoa baldintzatzen duten faktore garrantzitsuenetako bat da⁹³. Ideia honetatik abiatuz, korrelazio estua egongo

⁹¹ LEMMEN, «Malthusian Assumptions...», 90. or. Irudia Boserupen proposaturiko eskemaren sinplifikazio bat da. Jatorrizko krokisean kulturari eta familia egiturari dagokion letra ere ageri da (C). Alabaina, *Las condiciones* liburuaren ondorengo beste zenbait lanetan ere oinarritzen denez, aldagaia kentzea erabaki dut.

⁹² BOSERUP, *Las condiciones*, 70. or.

⁹³ Demografiaren eta teknologiaren garapenaren arteko lotura *Population and Technological Change* (1981) liburuan sakondu zuen Boserupen. Lan horretan, ondorengo ideia ezartzen du: asmakizunek, edo

litzateke biztanleriaren hazkudearen erritmoaren eta aldaketa teknologikoaren artean. Ondorioz, historiaren aldi ezberdinetan biztanleriaren hazkundeak atzera egin zuen kasuetan, aldaketa teknikoak eten egingo zen, bai eta laborantza sistemak aldatu ere⁹⁴. Hain zuzen ere, Boserupen behaketen arabera, gerren edo beste hondamendi batzuen ondorioz biztanleria-dentsitateak behera egiten duen kasuetan, «badirudi askotan laborantza-sistema estentsiboagoetara itzultzen dela populazioa». Era berean, populazioa gutxitzen denean, edota populazioa dentsitate txikiagoko eremuetara lekualdatzean, atzerapen teknikoak ematen dela dio⁹⁵.

Idea hauetatik abiatuz, Boserupen ondorioztatzen du geldirik dagoen populazio txiki batek ez duela «nekazaritza primitiboaren estadioa gaindituko eta ez dela garapen tekniko eta kulturalerako maila handira igaroko»⁹⁶. Aldiz, hazten ari den populazio batek lurraren laborantza hobetzeko eta nekazaritzan beste inbertsio batzuk egiteko beharrari aurre egin diezaiolke. Era berean, populazio dentsitatearen areagotzeak, epe luzean, lanbanaketa konplexuago bat eragiten du, eta kasu batzuetan, urbanizazio-maila handiagoak nekazaritzaren produktibitatea hobe dezake⁹⁷.

Azkenik, Boserupen intentsifikazio hipotesiaren baitako beste ideia bat lurraren jabetzaren aldaketen ingurukoa da. Boserupen, intentsifikazio prozesuan zehar lurraren jabetzaren pixkanakako eraldaketa deskribatzen du: klan edo familia bateko kide guztientzako laborantza-eskubide orokorretatik, lursailen jabetza pribatura. Hortaz, hazkunde demografikoaren presioarekin, nekazaritza modu intentsiboagoetaranzko aldaketarekin batera, lurraren jabetzaren garapen ebolutiboa gertatuko zen⁹⁸.

Wickhamen NEM, teknologiari eta lurraren erabilerari dagokionean bederen, azaldutako hipotesien logikaren baitan eraikia dagoela esan daiteke. Hain zuzen, bere Goi Erdi Aroko demografia ereduak Boserupen lanetan azaldutako tendentziekin bat egiten du. Wickhamen arabera, «populazioak nahiko modu orokorrean murriztu» zirela

hauek hedatzearen onarpenak, lotura handia dute eskariarekin, biztanleria-hazkunde azkar batek sor dezakeena. Era berean, dialektikoki harremandu daitezke demografia eta teknologia, hau da, aldaketa teknologiko batek (betiere, presio demografikoak sortua) biztanleriaren aldaketa handiagoa ekar dezake.

⁹⁴ *Ibidem*, 95. or.

⁹⁵ *Ibidem*, 104-105. orr.

⁹⁶ *Ibidem*, 126. or.

⁹⁷ Hala ere, ziurrenik, azken populazio horren lan-errendimendua murriztu egingo litzateke (epe laburrera behintzat), eta horrek lan handiagoko ordu gehiago eskaintzera behartuko luke, elikadura-maila ez murrizteko.

⁹⁸ *Ibidem*, 132-146. orr. Boserupen jabetzaren garapenaren inguruko hipotesiak eragin handia eduki du ikerketa-arlo ezberdinetan. Wickhamek, ordea, ez du ideia hau erabiltzen. Hau da, Boserupen lanaren zati konkretu batzuk soilik erabiltzen ditu bere ereduaren eraikuntzan.

dirudi aldi horretan, eta Mendebaldeko zenbait zonaldean «nekazaritza intentsiboak atzera egin zuela geografikoki». Demografiaren murrizte hau, ordea, nekazarien gizartearen barruan gertatu zela dio Wickhamek. Horrela, okupazio moduei dagokienean, lur pobreagoen okupazioaren amaierarekin, orokorki, ibai-haranetara eta haien arteko goi-lautadetara lekualdatu ziren. Lurrik pobreenak, ordea, ez ziren guztiz utzi: sarri erabiltzen ziren nekazaritza mota estentsiboagoetarako⁹⁹. Hau da, aipaturiko Boserupen ideia egikaritzen da: demografiaren murriztearekin populazioa laborantza-sistema estentsiboagoetara itzultzen denarena.

Alabaina, Boserupen logikari jarraituz, demografiaren murriztearekin atzerapen teknologikoa emango litzateke, eta kasu honetan, Wickhamen Goi Erdi Aroko eremuan ez da halakorik gertatzen. Sahlinsen atalean azaldu bezala, Goi Erdi Aroan nekazaritza-teknologiaren sinplifikazioa hutsa izan zela dio Wickhamek.

2.2.1.2. Aldaketaren faktore demografiko eta sozialak biziraupeneko ekonomietan

Boserupek azaltzen duenez, industriaurreko nekazaritza eremu batean populazioaren hazkundera gizon-orduko lortutako batez besteko produktua baino txikiagoa denean, kritikatzuten dituen ekonomialariek esperoko luketen erantzuna lan orduen kopurua handitzea litzateke («gizon-orduko errendimendu beherakorraren konpentsazio gisa»)¹⁰⁰. Haatik, antropologoen eginiko ikerketa gehienek bestelako tendentzia bat nabarmentzen dutela adierazten du: hau da, «talde tribaletan» banaturiko nekazari primitiboek ez dutela lanerako gaitasuna guztiz erabiltzen, eta, era berean, ordu gutxiagoz eta irregularki lan egiten dutela. Finean, Sahlinsen EEMaren ereduak ikusitakoa errepikatzen da, beraz¹⁰¹.

Lehen esan bezala, biztanleriaren hazkundera laborantza-sistemaren aldaketa bultzatzen duenean, nekazariak lan gehiago egitea onartu dezakete. Hau da, laborariak, indibidualki, gehiago ekoitz dezakete gogorrago lan eginez (eta, horrela, laborantza-sistemak aldatu gabe). Alabaina, antropologoen lanetan oinarrituz, Boserupek lan

⁹⁹ WICKHAM, *Framing*, 548-549. orr.

¹⁰⁰ BOSERUP, *Las condiciones*, 78. or.

¹⁰¹ Sahlinsek lan etnografikoak ikertzen dituen baliabideen azpi-probetxua identifikatzen du, batez ere, luberriketa sistema erabiltzen duten nekazari gizarteetan. Hauetan gauzatzen den ekoizpena lurzoruak duen ahalmena baino askoz txikiagoa dela azpimarratzen du (SAHLINS, *Economía*, 55-56. orr).

gehiago egiteko grinik eza azpimarratzen du; lana «behar fisiologiko» bilakatzen ez den bitartean gutxienez¹⁰².

Era berean, garaiko ekonomialarien usteei kritika egiten die Boserupek, laborantza-metodo estentsiboak erabiltzearen arrazoi nagusia ezjakintasuna zela uste zutenei, alegia. Ideia hauei kontrajarriz, eta, berriro ere, ikerketa antropologiko eta etnologikoetan oinarrituz, intentsifikazio ezaren kausa hau litzateke: gizarte hauek «pizgarri ekonomikoei erantzuten ez zietela» argudiatzen du. Zentzu honetan, Boserupek, Chayanovek 1920ko hamarkadan egin bezala, biziraupeneko nekazarien eta nekazari komertzialen portaerak bereizten ditu. Bere aburuz, biziraupeneko nekazariak gehiago erantzun zioten etxeko kontsumoari merkatuaren eskariari baino; etxeko beharretarako arriskua txikitzea bilatzen zuten, eta ez irabaziak handitzea¹⁰³.

Boserupen lanarekin amaitzeko, laborantza-sistemen aldaketan bi arrazoi nagusi mahaigaineratzen ditu ekonomialariak. Lehena, orain arte azalduko da, hots, presio demografikoarena. Bigarren arrazoa, ordea, presio soziopolitikoarekin loturik dago: laborantza-sistemen edo teknologien aldaketak hierarkia sozial batek behartuta eman daitezke. Lan honetako tesia biztanleriaren hazkundearen ondorioetan datzan arren, bigarren arrazoa litzateke Wickhamen lanean eragin handienetakoa eduki duena, hots, aldaketaren faktore sozialena.

Orain artekoa laburbilduz, Boserupek ondorengo ezaugarriak identifikatzen ditu lur-langile primitiboetan: 1) irregulartasunez ahalik eta ordu gutxien egiten dute lan; 2) tresna landuagoak zein laborantza-metodo intentsiboagoak ezagutzen dituzte, baina horien erabilerak lana areagotzea ekarriko luke; 3) ondorioz, aukera hauek baztertu egiten dituzte biziraupena kolokan jarri arte edota esplotazio harremanen sarrerak bultzatu arte.

Wickhamen lanera itzuliz, jarraian, orain arte azalduko logikak Goi Erdi Aroko gizarte-ereduan zein forma hartzen duen azalduko dut. Erdiarolariarentzat, arestian aipatutako demografiaren murriztea eragin zuen faktore nagusia krisialdi politikoa litzateke. Gutxitze hau, aldi berean, NEM sortzeko baldintza garrantzitsuenetako bat

¹⁰² BOSERUP, *Las condiciones*, 90. or.

¹⁰³ Boserupen ideia hau Chayanoven lanean oinarritzen dela dirudien arren, *Las condiciones*-en ez da bigarrenaren aipamenik ageri. Bitxikeria gisa, Turnerrek (2014) Chayanov ez aipatzearen zergatia galdetu zion Boserupi. Berak erantzun zuen, momentuan ez zuela inoiz Chayanoven inguruan entzun ezta irakurri ere, eta antzekotasunen arrazoa honela azaldu zuen: pentsamendu ekonomikoko “eskola” berean oinarritzen zirela biak (TURNER eta FISCHER-KOWALSKI, «Ester Boserup...», 5. or.).

litzateke: estatu-egitura eta aristokrazia ahuldu, eta ondorioz, nekazari independenteagoak sorraraziko lituzkeena. Britanian, adibidez, V. mendeko nekazariak ordaindu beharreko errenta eta zergak eurrez murriztu ziren eraldaketa soziopolitikoaren eta populazioa urritzearen eraginez. Hortik ondoriozta daiteke, nekazariak ordura arteko mailan ekoizten jarraitu balute pertsonako elikagai kopurua handitu egingo zatekeela.

Wickhamek, ordea, Boserupen tesian oinarrituz, jarrera honen mugak azpimarratzen ditu. Bere ustez, nekazarien modu idealean lan gutxiago egitea izango litzateke demografiaren atzerapenari emandako erantzuna. Modu berean, joera honek azalduko luke lur pobreenen laborantzaren uztea; lur hauek lan kopuru berarekin gutxiago ekoizten baitute¹⁰⁴. Izan ere, Sahlinsen atalean ikusi bezala, nekazarien moduaren logika biziraupenarena da, unitatearen erreprodukzioan oinarritzen da.

Logika honen baitan, NEMaren beste joera bat demografiaren beraren kontrola litzateke; hau da, sistema estentsiboek (lan gutxiago eskatzen dutenak) bizirauteko helburuz populazioaren tamaina mugatzea. Murriztapen hauek, ezkontza berantiarraren edota jaiotza-kontrolaren bitartez gauzatuko lirateke¹⁰⁵. Beraz, Boserup-en ideiei jarraituz, NEMaren demografia eredua murrizta litzateke, metodo estentsiboagoak erabiltzea eta lan gutxiago egin behar izatea eragingo lukeena. Kontrako norabidean ere, metodo estentsiboagoak mantendu eta lan gutxiago egiteko helburuz, demografiaren hazkundera galaraziko litzateke.

Ondorioz, presio demografikoa kontrolpean edukita, presio sozioekonomikoa da eredu hau aldaraziko lukeen eragile bakarra; Wickhamentzat, esaterako, ekoizpen modu feudalaren sarrera litzatekeena. Hau da, gorago esan bezala, Wickhamek kanpo presioaren azalpena hartzen du oinarritzat Goi Erdi Aroko nekazari-moduaren aldaketa azaltzeko. Boserupen lanean, ordea, faktore honek ez du azalpen sakonik.

Hain zuzen, Wickhamen behaketen arabera, IX. mendeko *Île de France*-n jaun-sistemaren eta demografiaren garapena batera gertatu zen. Beste era batera esanda: «kasu honetan, populazioaren hazkundera eta esplotazioaren areagotzea eskutik doaz»¹⁰⁶. NEM idealean, ordea, soberakinak metatzen ez direnez, etxe batek teknologia hobetzearen eta lan gehiago egitearen bidez ekoizpena hobetzeko pizgarririk ez dago:

¹⁰⁴ WICKHAM, *Framing*, 459-550.

¹⁰⁵ *Ibidem*, 439; 550. orr.

¹⁰⁶ *Ibidem*, 550. or.

«izan ere, kideek soberakina hain aktiboak ez diren eta, beraz, behar handiena duten pertsoneri ematen amaituko dute»¹⁰⁷. Ondorioz, NEMan, populazioaren tamaina mugatuak lotura zuzena dauka biziraupenerako ekoizpenaren eta elkarrekikotasunaren logikarekin; eta nekazaritza-metodo zein teknologien maila ekuazio honen emaitza litzateke. Hots, Boserupen irizpidea baliatuz, gizarte honen eraldaketa faktore exogenoetan kokatzen du Wickhamek.

3. ONDORIOAK

Nekazarien ekoizpen moduaren oinarri teorikoetara eginiko hurbilketa honek, zenbait ondorio nagusi mahaigaineratzeko aukera ematen du. Lehenengo eta behin, Wickhamen erreferentziazko lanen analisiaren bitartez, bi obra ezar daitezke kategoria honen oinarri nagusi gisa. Lehen, Marshall Sahlinsen *Stone Age Economics* (1972) da, etxeko ekoizpen moduaren proposamena jasotzen duena. Oro har, ekoizpen modu honetan identifikaturiko ezaugarri gehienak atzeman daitezke Wickhamen proposamenean. Sahlinsek ezarrirako komunitate primitiboen nolakotasunak osotasunean hartzen ditu Wickhamek eredu idealerako. Ezaugarri hauek, bereziki, ekoizpenaren antolaketaren eta ekoizpen-unitateen barne eta kanpo harremanen inguruko arloei dagozkienak dira.

Bigarren lan nagusia Ester Boserupen *The Conditions of Agricultural Growth* (1965) da. Bertatik hartzen dituen ideiak, batik bat, demografiaren, garapen teknologikoaren eta presio soziopolitikoaren ingurukoak dira. Wickhamek lan honetatik harturiko ideiak partzialagoak dira, hots, lanaren hipotesi orokorra erabili baino ideia zehatz batzuk hartu ditu bere proposamena osatzeko. Horren adibide da aldaketaren faktore sozialen kausarena: Boserupek liburuan ia garatzen ez duen ideia izan arren, Wickhamen azalpenean zimendu nagusia da. Baliteke azalpen hau nekazari-moduaren desagerpena faktore exogenoetan kokatzeko baliatu izana.

Wickhamek berak aipatzen duen hirugarren erreferentzia Claude Meillassouxen *Femmes, greniers et capitaux* (1975) da. Oinarri teorikoen azterketan atzeman daitekeenez, ordea, ez dut gauzatu lan honen analisisirik. Hau sostengatzeko arrazoia da, obra irakurri ostean ez dudala lotura handirik aurkitu Wickhamen kategorien eta Meillassouxen lanean proposatzen duen etxeko komunitatearen artean. Hau da,

¹⁰⁷ *Ibidem*, 537. or.

Meillassouxen eraikuntzatik hartutako osagaiek oso bazterreko papera jokaten dute Wickhamen proposamenean. Gainera, kontutan hartzekoa da, Meillassouxek bere proposamena Sahlinsenarekin kontrakotasunean eraikitzen duela¹⁰⁸. Alderantziz, ugari dira Wickhamen eta Meillasouxen proposamenen artean identifikatu ditudan ezberdintasunak, esaterako, bigarrenaren eredu a) nekazaritza produktibitatea oso altua dela; b) espezialisten existentzia dagoela; c) teknika berriak direla aldaketa sozialak eragiten dituztenak; edota d) barne-hierarkia “adinaren” bidez ezartzen dela. Aipatzen duen lanean baino, Meillassouxen beste obra batzuetan aurki daitezke harreman gehiago, esklabotzari dagozkionetan, adibidez. Horrela, nik uste, esklaboen existentziaren arazoari irtenbide teorikoa emateko baliatzen du Meillassoux.

Oinarri nagusi hauetaz gain, Wickhamen erreferentzia zuzenak ez diren arren, zenbait autoreren ideiak zeharka iristen dira bere proposamenerako erabili dituen egileen bitartez. Horren adibide garbia litzateke A. V. Chayanoven lan-kontsumo balantzearen nozioa, Sahlinsen lanaren bitartez hartzen duena. Era berean aipatzekoak lirateke Polanyi, Mauss, Lévi-Strauss, Malinowski zein Godelier bezalako autoreak. Hau da, antropologia ekonomikoaren alorretik gizarte primitiboen inguruan ezarritako jarraibideen eragin argia topa daiteke Wickhamen eredu idealaren eraikuntzan.

Beste alde batetik, Wickhamek bere proposamena ikerketa marxisten baitan kokatzen duen arren, zenbait puntutan metodo marxistatik aldentzen dela iruditzen zait. Hori erakusteko, aipa daiteke ekoizpen modua eraikitzeko Weberren eredu idealaren tresna erabiltzen duela, eta ez marxismoaren metodo analitikoak. Are gehiago, kontuan hartu behar da bere eredu ideala Sahlinsen eredu idealean oinarrituz eraikitzen duela: abstrakzio ezberdinak *Idealtyp* bakarrean batuz.

Halaber, liburuan zehar *Grundrisse*-etako ekoizpen modu germaniarraren aipamenik egiten ez duen arren, eta beste lan batzuetan kritika egin badio ere, nekazarien ekoizpen modua ez da gehiegi aldentzen germaniar modutik.

¹⁰⁸ Meillasoux-ek Sahlins-en proposamena baztertu eta kategoria hau era berri batean planteatzen du. Meillasoux-en ekoizpen harreman sozialak analisiak «etxeko ekoizpen moduen» kategoria gisa erabiltzen du, baina errealitatean ez du ulertzen etxeko ekoizpen eta erreprodukzio harremanek ekoizpen modu bat artikulatzen dutenik. Beretzat, etxeko harremanak («etxeko komunitate» gisa definitzen dituenak) ekoizpen-modu historiko guztien oinarri dira, etxeko harremanen erreprodukzioan elementu zentral bat baitago: lan indarraren erreprodukzioa (CUEVAS VALDÉS, “De la clase...”, 17-19. orr).

Oro har, lan hau nekazarien ekoizpen moduaren oinarri teorikoetara hurbiltzeko eta honen ezaugarriak errotik ulertzeko saiakera izan da. GrAL baten luzera-mugak direla eta, sakonduko nituzkeen zenbait ideia azaletik aipatu behar izan ditut. Kontzeptu zein problematika hauek, ordea, oraindik ere garatu eta argudiatu beharrezkoak direla iruditzen zait. Hain zuzen ere, ekoizpen modu prekapitalisten eta gizarte primitiboen inguruko eztabaidek irekita jarraitzen dute. Horren adibide dira, J. Banaji, C. Astarita eta L. Da Gracak Wickhamen kategoriaren bueltan eginiko kritika eta hausnarketak. Gauzak horrela, lan honek erakutsi dit Goi Erdi Aroaren inguruko ikerketan ere teoriaren esparruan lan egin eta eztabaidatzen jarraitzea garrantzitsua bezain beharrezkoa dela.

4. BIBLIOGRAFIA

- ASTARITA, Carlos. "Peasant-Based Societies in Chris Wickham's Thought". *Historical Materialism*, 2011, (19.1), 194-220. orr.
- BEHRMAN, Julia; MEINZEN-DICK, Ruth eta QUISUMBING, Agnes. «An Interpretation of Large-Scale Land Deals Using Boserup's Theories of Agricultural Intensification, Gender and Rural Development». In FISCHER-KOWALSKI, Marina; REENBERG, Anette; SCHAFFARTZIK, Anke eta MAYER, Andreas (eds.). *Ester Boserup's legacy on Sustainability: Orientations for Contemporary Research*. Springer: Human - Environment Interactions, 2014, vol. 4, 189-220. orr.
- BONNASSIE, Pierre. "Supervivencia y extinción del régimen esclavista en el Occidente Medieval durante la Alta Edad Media: Siglos IV-XI". *Boletín de Historia Social Europea*, 1989, (1), 53-107. orr.
- BOSERUP, Ester. *Las condiciones del desarrollo en la agricultura*. Madrid: Tecnos, 1967.
- BOSERUP, Ester. *Population and technological change*. Chicago: University of Chicago Press, 1981.
- COOK, Scott. "Structural Substantivism': A Critical Review of Marshall Sahlins' Stone Age Economics". *Comparative Studies in Society and History*, 1974, vol. 16, 355-379. orr.
- CUEVAS VALDÉS, Pablo. "De la clase social a la estructura de unidades domésticas en el agro. El continuo campesino-proletario y una propuesta para su análisis". *Mundo Agrario*, 2019, 20(40), e188, .
- DA GRACA, Laura. "Reflexiones metodológicas sobre el estudio comparativo de Chris Wickham". *Edad Media*, 2008, (9), 265-297. orr.
- DA GRACA, Laura eta ZINGARELLI, Andrea. «Introduction to Studies on Pre-Capitalist Modes of Production: Debates, Controversies and Lines of Argument». In DA GRACA, Laura eta ZINGARELLI, Andrea (eds.). *Studies on pre-capitalist modes of production*. Leiden: Brill, 2015, 1-26. orr.
- GLUJ, Anabella. «¿"Formaciones sociales precapitalistas" o "Formas que preceden a la producción capitalista"?». In *XIV Jornadas Interescuelas/Departamentos de Historia. Departamento de Historia de la Facultad de Filosofía y Letras*. Mendoza: Universidad Nacional de Cuyo, 2013.

- GODELIER, Maurer. *Teoría marxista de las sociedades precapitalistas*. Barcelona: Estela, 1971.
- GODELIER, Maurice. *Economía, fetichismo y religión en las sociedades primitivas*. Madrid: Siglo XXI, 1978.
- GODELIER, Maurice. *Lo ideal y lo material*. Taurus Humanidades, 1989.
- GODELIER, Maurice. *Racionalidad e irracionalidad en Economía*. Siglo XXI, 1974.
- GRAEBER, David. «Foreword to the Routledge classic edition». In SAHLINS, Marshall. *Stone Age Economics*. London: Routledge, 2017, 9-19. orr.
- GUERREAU, Alain. *El feudalismo. Un horizonte teórico*. Barcelona: Crítica, 1984.
- HOBBSAWM, Eric. «Introducción». In MARX, Karl. eta HOBBSAWM, Eric. *Formaciones económicas precapitalistas*. México: Siglo XXI, 2009.
- JESSOP, Bob. «Mode of Production». In EATWELL, John, MILGATE, Murray, eta NEWTON, Peter (eds.). *Marxian Economics*. London: Macmillan, 1990, 289-296. orr.
- LARREA, Juan José. “Estudiar el estado para comprender las sociedades altomedievales: a propósito de un libro reciente”. *Studia Historica. Historia Medieval*, 2019, 37(2),181-198. orr.
- LEMMEN, Carsten. «Malthusian Assumptions, Boserupian Response in Transition to Agriculture Models». In FISCHER-KOWALSKI, Marina; REENBERG, Anette; SCHAFFARTZIK, Anke eta MAYER, Andreas (eds.). *Ester Boserup's legacy on Sustainability: Orientations for Contemporary Research*. Springer. Human - Environment Interactions, 2014, vol. 4, 87-97. orr.
- LOMNITZ, Claudio. “Sobre reciprocidad negativa”. *Revista de Antropología Social*, (14), 2006, 311-339. orr
- MARTÍNEZ ÁLVAREZ, Bibiana. *Tensiones entre los distintos aspectos de la sostenibilidad económica, social y medioambiental: el caso de las explotaciones agropecuarias gallegas*. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- MARTÍN MILIDDI, Federico. «Pierre Vilar y la construcción de una Historia marxista. Notas sobre el debate con Louis Althusser». In *Actas y comunicaciones del Instituto de Historia Antigua y Medieval*, 2007, vol. 3, 1-11. or.
- MEILLASSOUX, Claude. *Mujeres, graneros y capitales*. México: Siglo XXI, 1977.
- MOLINA, José Luis eta VALENZUELA, Hugo. *Invitación a la antropología económica*. Barcelona: Bellaterra, 2007.

- MOORE, Jerry D. *Visions of Culture: An Introduction to Anthropological Theories and Theorists* (3rd ed.). Altamira Press, 2008.
- O’LAUGHLIN, Bridget. “Review of *Stone Age Economics* by Marshall Sahlins”. *American Journal of Sociology*, 1974, (79), 1361–1364. orr.
- PEOPLEPILL. *About Christopher Wickham: British historian (1950-)*. [Online] Eskuragarri: <<https://peoplepill.com/people/christopher-wickham> > [Azken kontsulta: 2021/05/10].
- PÉREZ TOURIÑO, Emilio. *Agricultura y capitalismo. Análisis de la pequeña producción campesina*, Madrid: Servicio de Publicaciones Agrarias, 1983.
- RUIZ SANJUÁN, César. “Libertad, igualdad y propiedad en la sociedad capitalista”. *Daimon Revista Internacional De Filosofía*, 2013, (61), 131-148.orr.
- SAHLINS, Marshall. *Economía de la Edad de Piedra*. Madrid: Akal, 1983.
- SANCHEZ DE PUERTA TRUJILLO, Fernando. “Los tipos ideales en la práctica: significados, construcciones, aplicaciones”. *Revista de Metodología de Ciencias Sociales*, 2006, (11), 11-32. orr.
- TEJERIZO GARCÍA, Carlos. “Del modo de producción germánico al modo de producción campesino. Nuevos enfoques materialistas para la Primera Alta Edad Media peninsular: propuestas desde la arqueología”. *Nuestra Historia*, 2020, (9), 17-36. orr.
- TEJERIZO GARCÍA, Carlos. *Arqueología de las sociedades campesinas en la cuenca del Duero durante la Primera Alta Edad Media*. Bilbao: Universidad del País Vasco, 2017.
- TURNER, B. L. eta FISCHER-KOWALSKI, Marina. «Ester Boserup: An Interdisciplinary Visionary Relevant for Sustainability». In FISCHER-KOWALSKI, Marina; REENBERG, Anette; SCHAFFARTZIK, Anke eta MAYER, Andreas (eds.). *Ester Boserup's legacy on Sustainability: Orientations for Contemporary Research*. Springer. Human - Environment Interactions, 2014, vol. 4, 3-11. orr.
- WICKHAM, Chris. *Framing the Early Middle Ages. Europe and the Mediterranean, 400-800*. Oxford: Oxford University Press, 2005.
- WICKHAM, Chris. “Aproximaciones marxistas a la Edad Media, algunas cuestiones y ejemplos”. *Nuestra Historia*, 2019, (6), 91-107. orr.
- WICKHAM, Chris. “La otra transición: del mundo antiguo al feudalismo”. *Studia Historica. Hª Medieval*, 1989, VII, 7-35. orr.

“Neusykhin, Aleksandr”. *The Great Soviet Encyclopedia, 3ed Edition, 1970-1979*. The Gale Group, 2010. [Online] Eskuragarri:
<<https://encyclopedia2.thefreedictionary.com/Neusykhin%2C+Aleksandr>>
[Azken kontsulta: 2021/05/12].